

EUSKAL KULTURAREN KONTRAESANAK: TEORIA ETA PRAXIA

Paulo Iztueta

Euskal kulturaz zer ulertzen den zehaztu ondoren, euskal autore klasikoek euskal gaiak zein hizkuntzatan landu dituzten aztertzen da lan honetan. Hizkuntzalaritzaren nahiz etnologiaren aldetik aho batez onartua da euskaltzaleen artean, beste hainbat elementu bereizgarriekin batera, euskara dela gure kulturak muinekoena duena. Euskal kulturaz zentzu hertsian hitz egiteko, bada, badirudi beharrezko dela euskara erabiltzea komunikazio-tresna gisa euskal gaiak nahiz bestelakoak lantzerakoan.

Praxia nolakoa izan den aztertzen da, oinarriztat jadanik bilduak dauden euskal autore klasikoen idazlanak hartuta. Erakusgarritzat errepresentagarrienak hautatu dira: Azkue, Orixe, Barandiaran, Lekuona, Aitzol, Lafitte, Zaitegi eta Mitxelena. Sistemaz, metodo koantitatiboa erabiliz, autore horietako bakoitzaren hizkuntz erabilera neurtu da: a) tituluen arabera, b) orrialde-kopuruaren arabera, eta c) testu-masaren arabera. Zein gai landu dituzten ere zehazten da.

Azkenean, ondorio batzuk ateratzen dira aditzera emanaz kontraesan nabariak esaten direla teoriaren eta praxiaren artean, autore gehienen hizkuntz erabileran gaztelania baita nagusi. Guztiek praktikatu dute, Zaitegik salbu, elebitasun onargarria, euskara egoera diglosikoan daukaten gaztelania eta frantsesaren faboretan.

Badira gure artean euskal kulturaren inguruan egin diren lanak, garai eta organo desberdinetan argitaratu direnak, nahiz artikulu solte gisa aldizkarietan nahiz lan monografiko gisa talde-lanean. Azken mota honetako argitalpenak ditugu, adibidez, *Lur eta gizon, Euskal Herria*¹ eta *Cultura Vasca (I-II)*² liburuak, biak 1970eko hamarkadan argitaratuak.

Ohitura akademikoa da, lan bati ekitean, alde aurretik ikergaitzat hartzen den kontzeptua bera definitzea. Prozedura honek, ordea, bere zailtasunak ditu. Hauen artean bat, eta hau orokorra gainera, da kontzeptu batek, bizitzak bezala, bere eboluzioa duela eta, ondorioz, garai eta testuinguru desberdinetan adiera desberdinak hartzen dituela. Zentzu honetan, ez da berdin euskal kulturaz ihardutea kontzeptu hori euskal gizarte tradizionalari aplikatuta edo gaurko euskal errealitatea ere kontuan hartuta. Lehen aipaturiko iturri horiek hartzen baditugu, ikusten dugu euskal kulturaren barruan ohizko gaiak tratatzen direla, hala nola: geografia, etnografia, historiaurrea, Antzinateko historia, Erdi Arokoa eta Modernokoa, instituzio juridikoak, hizkuntzalaritza, ahozko eta idatzizko literatura, pentsamendua, artea eta folklorea, etab. Nolabait esateko, historian zehar euskal gizartea euskal herri gisa espezifikatu duten ezaugarriak aztertzen dira. Baina aro garaikide honek hain aldaketa sakonak ekarri ditu maila sozio-politikoan nahiz ideologikoan, guzti honek, bistan da, egungo euskal gizartea bera azpi-azpitik astindu du eta eraldatu. Eta orduan galdera da ea Euskal Herriari

espezifikoa zaion kultura hau nola moldatuz datorren egoera berri honetara. Egia esan, azken puntu honetaz apenas egin den gogoetarik, ezago ikerketa-lanik, zeren egiteko hori, aldapatsua izateaz gain, irriskorra baita. Beraz, edozein kulturaren dimentsio dinamiko eta historikoa ezin da ahaztu.

Bestalde, euskal kulturaren kasuan, bere elebitasun-egoerari darizkion zailtasun berri batzuk pilatzen dira, oraindik ere gehiago konplikatzen dutenak alde aurretiko definizio baten formulaketa. Eusko Pizkundek, ikusirik euskal gizarte tradizionala definitzen zuten elementu bereizgarri nagusiak desagertzen ari zirela aro modernoaren atarian, eta desagertzen gehienbat estatu zentralisten asimilazio-prozesuaren ondorioz, Euskal Herriaren nortasuna definitzeari ekin zion. Eta ekin, gainera, ikuspuntu desberdinetatik eta ekimen desberdinak martxan jarritz.

Planteamendu politikotik abiatuta, Alemaniako eskolaren *Volksgeist* edo herri-izpiritua oinarritzat hartuz, euskal nazioaren definizioa mamitzera heldu zen Sabino Arana, definizio horretan elementurik oinarritzkoenak izanik hizkuntza, erlijioa eta, batipat, arraza³. Hortik datorkigu euskal nazionalismoaren karga historiko guztia. Campion-ek, planteamendu politikoetan baino gehiago kulturaletan oinarrituta, euskara ezarri zuen euskalduntasunaren giltzarritzat. Eta Euskal Herria definitzeko orduan, nazioa eta herria bereizi zituen: hura Estatuaren kontzeptuari dagokiona den bitartean, hau etniaren kontzeptuari dagokiona

da⁴. Campion, noski, aldendu egiten da Sabino Aranaren pentsamendutik, bi puntu hauetan bai bederen: batetik, herria egiten duena ez da arraza, kultur komunitatea baizik, eta, bestetik, herria nazioa baino zerbait garrantzitsuagoa da. Sabino Aranak politikagintza bultzatu duen bezala, Campion-ek kultur mugimenduari eragingo dio euskal jaien inguruan. Barandiaranek, kultur planteamenduaren barruan alderdi antropologikotik definituko du Euskal Herriari eta, ondorioz, euskaldunari buruzkoa. Ikerketa etnografiko, arkeologiko eta antropologikoetan sustraiak bilatuta, ondorioz ateratzen du Euskal Herria etnia definitu bat dela, “bizikera eta gogo-lantze” bereziak dituen⁵ eta, elementu etniko bereizgarrien artean, bereizgarriena euskara dela⁶. Barandiaranen planteamendu antropologiko honek, aurreko beste ikuspegi hertsiki politiko eta kulturalen aldean, beharbada perspektiba zabalagoak irekitzen dizkigu euskal kulturaren definiziora hurbiltzeko orduan. Baina horrek ere bere kateak ditu, eta bihurriena hauxe da: euskal kulturaren eredu hori funtsean antzinako Euskal Herriari dagokiona dela eta, euskal gizartea hainbeste aldatu den une honetan kultur elementu berriak sartu direnez gero, ez dakigula zuzen zer den euskal kultura eta zer ez. Bestalde, dirudienez, maila teorikoan tesi onartua da euskal kulturaren definizioan euskara ardatza dela, elementurik funtsezkoena. Praxiaren mailan, ordea, euskal gaiez erdaraz egindako liburuak ere pilaka daude, eta literatura hau ere, batez ere sail espezializatuetan, euskal kulturaren izenean agertzen da.

Beraz, nahasketa handia dago, eta noraeza ez txikiagoa. Baina ez da nire oraingo eta hemengo lana baso ilun hori argitzea.

Ohar metodologikoak

Aipaturiko zailtasun horien aurrean, beti ere euskal kulturaren azalpen analitiko batera hurbiltzeko xedearekin, genealogi metodoa erabiliko dut, ikusiz, Eusko Pizkundetik hasita, euskaldunek nola bizi izan duten euskal kultura eta, batipat, nola adierazi duten, nolako kontraesanak dauden teoriaren eta praxiaren artean.

Arestian esan bezala, Eusko Pizkundeak euskal nortasunaren bila egindako ekinaldian, nazioa, etnia eta gogo-lantzearen kontzeptuak aurkitu zituen eta euskal kultura, harez gero, elementu politiko, kultural eta antropologiko horien ingurumarian definitu izan da. Euskaltzaleek, beren komunitatea barrutik ikertuta, beren nortasuna definitzen dute, eta hori egitean jauzi koalitatiboa egiten da, zeren, galduz doazen herri zahar honen oroitzapen prehistoriko nahiz historikoak bildumetan jasotzean, ekarpen interesgarriak egiten baitira.

Eusko Pizkundeko euskaltzaleek euskal kulturari buruzkoa nola planteatu zuten aipatu ondoren, teoriatik praxira pasatuko gara, galdetuz ea zein neurritan bete zituzten beren helburuak. Orduan egindako ikerketatik ateratzen den ondorio nagusia baldin bada Euskal Herria gehien ezaugarritzen duena hizkuntza, euskara alegia, dela, galdetu behar da

ea nola aplikatu izan den tesi hori orduko euskaltzaleen artean. Arazoa, beraz, hizkuntz erabilerarena da. Eta hemendik doa nire azterketa, maila batean, eta ezinbestean, koantitatiboa izango dena.

Baina aurretik, lan honen mugak behar bezala finkatzeko, ohar batzuk egin behar ditut.

Lehenik, autore-zerrenda bat aukeratu dut, gerrate aurreko belaunaldikoen pentsamoldea eta jokamoldea zer-nolakoa izan den ikusteko. Irizpideak? Aski errepresentatiboak izatea pentsamendu mailan eta gai desberdinetan, Eusko Pizkundearekin lotura zuzena izatea eta, azkenik, beren ekarpena jadanik buruturik dutenak eta, zentzu honetan, klasikoak izatea. Beraz, gaur egun aktiboan daudenek ez dute hemen lekurik.

Autore klasikoen izenarekin zazpi ekarri ditut, zaharretik hasita, jarraiko hauek: Azkue (1864-1951), Orixe (1888-1961), Barandiaran (1889-1991), Lekuona (1894-1987), Aitzol (1896-1936), Lafitte (1901-1985), Zaitegi (1906-1979) eta Mitxelena (1915-1987).

Zergatik horiek eta ez beste batzuk? Garbi esan behar dut, bai kopurua eta bai izenak erlatiboak direla, baina ez horregatik erabat arbitrarioak. Xehetasunak eman beharrean nago, beraz, azalduz zergatik lehenetsi dudan aukera hori.

Lehenik, euskal kulturari buruzko lehen planteamendu teorikoak Pizkunde garaian egin baitziren,

ezinbesteko abiapuntua iruditu zait gaurko euskal kulturaren garapena ezagutzeko ordukoan oinarrituta egitea. Eusko Pizkundearen luze-zabala zehaztasunez mugatzea ez da erraza, baina nahikoa onartua da Foruen aboliziotik (1876) gerrate zibila (1936) bitarteko epealdia halakotzat hartzea, nahiz eta horren barruan sartzen diren lehenagoko autore batzuk ere, hala nola, L. L. Bonaparte (1813-1891) eta Jose Manterola (1849-1884). Zazpi horietatik, lehenengo lauak ez bezala, Lafitte, Zaitegi eta Mitxelena mende honen hasierakoak ditugu, 1936ko gerrateak oraindik gaztetasun betean harrapatzen dituenak. Hauek beren emaitza nagusiak gerrate ondoren emango badituzte ere, Eusko Pizkundearekin harreman estua izan zutelako eta tradizioz handik datozenak direlako, autore klasikoen artean kokatu ditut. Gainera, jadanik autore klasikotzat hartuta daude, Euskal Editoreen Elkarteak argitaratutako argitalpenetan ikus daitekeenez. Zaitegiren izena zerrenda horretan noiz agertuko zain gaude.

Bigarrenik, autore horiek hautatzean, pentsamenduaren indarra izan dut gogoan, batez ere kulturari eta hizkuntzari buruzko gogoeta mailan. Guztiak dira pentsalariak, guztiak zerbait berri ekarri dutenak, bakoitzak bere alorrean: Barandiaranek etnologian, Lekuonak ahozko literaturan, Azkue eta Mitxelenak linguistikan, Aitzolek euskal kulturaren dinamika eta gizarte-antolakuntzan, Orixe eta Zaitegik euskarazko sorkuntza literario nahiz filosofiko-teologikoan, Lafittek gizarte-zientzietako esparru desber-

dinetan, literaturan nahiz linguistikan. Gainera, azken honek Iparretik Hegorako kultur zubia egiten digu, bereziki 1936ko gerratetik aurrera. Horregatik, oso jakinaren gainean utzi ditut kanpoan Lizardi edo Jautarkol bezalako literato hutsak. Autore gehiago ekar nitzakeen, adibidez, Altube, Justo Mokoroa eta beste batzuk. Lanari muga bat jarri behar eta, batez ere, denboraren ekonomiak eraginda, zazpi horiekin geratu naiz, ustez nahikoa errepresentatiboak direlakoan hemen azaldu nahi dena azaltzeko.

Hirugarrenik, hurbilketa koantitatibo egiteko orduan, izan dut zailtasunik. Lehena iturriei dagokiena da. Aitzol, Orixe, Lekuona eta Barandiaranen kasuan, zailtasuna ez da hainbestekoa izan, zeren horien lanak bilduta daude idazlan guztietan eta horietan oinarritu naiz⁷. Lafitte eta Mitxelenaren lan guztiak bere osotasunean -azken honen euskarazkoak⁸ salbu- biltzeke dauden arren, eskuetan izan ditugu M. Isabel Goikoetxeak⁹ Lafittez eta Joseba A. Lakarrak¹⁰ Mitxelenaz egin duten bibliografi hustuketa. Eshaustibotasuna askoz ere apalagoa izan da Azkue eta Zaitegiren kasuan, gehienbat Jon Bilboaren *Eusko Bibliografia*-n¹¹ eta miaketa pertsonalean oinarritua baitago. Nolanahi ere, Zaitegiren *Euzko-Gogoa*-ko lanak xeheki hustuak ditut. Honekin esan nahi dut iturri desberdinak erabili ditudala eta ez direla denak fidagarritasun-maila berekoak.

Bestalde, eta orain bigarren zailtasun-mota aipatzera nator, testu idatzia hizkuntz erabileraren arabera

zenbakitzeko orduan, kantitatea neur-tzea da xede nagusia eta, horretarako, hiru irizpide izan ditut: tituluaren arabeko neurketa, orrialdeen araberakoa eta, azkenik, testu-masa edo karaktereen araberakoa. Hemen ere, ez bakarrik autore desberdinetan, autore beraren baitan ere liburu batzuk besteetatik desberdinak baitira kanpo-egituraren aldetik ez denean barrukotik, kopuru absolutuak nahiz portzentaiak beti ere ikuspegi erlatiboarekin irakurri behar dira.

Beraz, bi zailtasun horiek aurrean ditugula, neurketa-saio hau lehen hurbilketa gisa hartu behar da, halako lan batek eskatzen duen zuhurtzia guztiarekin. Horrela egitean, nire asmoa euskararen erabilerari dagokionez joerak nondik nora doazen detektatzea izan da. Etorriko al dira nire hemengo desbideraketak zuzenduko dituzten beste lan zehatzago batzuk!

Segidan, bi alderdi aztertuko dira autore klasikoengan: lehenik, zein den aipaturiko zazpi autore klasiko horien hizkuntz erabilera, hots, zein maiztasunarekin erabiltzen dituzten euskara eta erdarak beren lanerako tresna gisa; bigarrenik, pentsalari eta ikertzaile diren aldetik, zein disziplina jorratu dituzten eta zein hizkuntzatan nagusiki.

Oparotasuna eta hizkuntz erabilera autore klasikoengan

Biok batera. Honen garrantzia? Handia benetan. Askotan aipatu izan da autore horiek, bakoitza bere sailean, erraldoi izan direla. Esan bai, baina

sekula ez da daturik eman izan bere orokortasunean. Izan ere, hainbeste titulu dago barreiatu aldizkaritan barrena! Hurbilketa xume honek, besterik ez bada, begiak irekiko dizkigute egin duten lanaz jabe gaitzen. Kantitate hutsa eskaintzen dugula? Hala da, baina hori da kalitateari soina ematen diona. Bada ordua alderdi honi arreta gehiago emateko, euskal kulturgintzan ez baitira guztien idazlanak, ezta kantitate aldetik ere, konparatzekoak. Autore bati buruz ihardutean, lehenik zor zaiona, hain zuzen, bibliografi ezagutza da.

Ekarria zein hizkuntzatan egin izan den neurtzeak ere badu beste hainbeste munta eta gehiago. Hizkuntzaren erabilerak, Soziolinguistikaren aldetik begiratuta, kulturgintzaren alderdi koalitatiboa ere ukitzen du, zeren egia bada ideien adierazpenak hizkuntza jakin baten zeinu berezia daramala, ez da indiferente edozein sorkuntza-mota, literarioa nahiz zientifikoa, edozein hizkuntzatan egin ala ez. Hizkuntza ideiak adierazteko tresna bat da, baina ez edozein tresna, arras berezia baizik, herri baten izpiritua gehien markatzen duena. Autore horiek, teori mailan bederen, hori baieztatzen badute, nola jokatu dute beren hizkuntzarekiko? Eusko Pizkundearen betean euskararen aldarrikapen soziala eta akademikoa egin zuten horien hizkuntz portaera ezagutzeak gauza asko argituko dizkigu, beste batzuen artean, esaterako, planteamenduetan eta, are, jokamoldeetan ez zegoela adostasunik.

Testu idatziaren neurketa, esan bezala, tituluak, orrialdeak eta karak-

tereak kontutan hartuta egingo da. Honela, ikusi ahal izango da, oro har, zenbat idatzi duten eta, bidenabar, idatzia zein hizkuntzatan idatzia den. (1. Taula)

Taula horrek behar du esplikaziorik. Hiru irakurketa bederen eskatzen ditu interpretazioa zentzu kritikoan egin ahal izateko: guztizkoarena, liburuen eta artikuluen arteko proportzioarena eta, azkenik, euskaraz eta erdarazko liburuen artekoarena.

Guztizkoaren zutabea bere horretan begiratuta, horrela larrutsik, sailkapen-ordena hau ematen du euskararen erabilera oinarritzat hartuta: buruan Zaitegi ehuneko ehunekoarekin, bigarren Azkue, % 85,32 garaiarekin, segidan Lekuona, Lafitte eta Mitxelena % 55etik gorako portzentaiarekin; eta ehuneko erditik behera, Orixe % 35,45arekin eta, azkenik, Barandiaran eta Aitzol testimonialtzat har daitekeen % 6arekin.

Hori horrela emanda, funtsean engainagarria izan daiteke, baldin tituluen artean ez badira bereizten liburuak eta artikulak. Horregatik, eta hau da bigarren irakurketa, sailkapen-ordena asko aldatzen da, zeren hemen garbi ageri da euskarazko liburugile oparoenak, portzentaien arabera, Zaitegi, Lafitte, Orixe eta Azkue direla; kopuru absolutuetan, berriz, Lafitte, Orixe, Zaitegi eta Azkue. Baina hemen kontuz ibili behar da, zeren liburuak eta liburuak daude: lankidetzan egindakoak, liburutxoak, artikulubildumak, besteen obren bilduma eta prestaketak, berrargitalpenak, itzulpenak, sorkuntzaz-

1. taula: Hizkuntz erabilera tituluaren arabera

Autoreak	Euskaraz		Erdaraz		Guztira
	Zenb. abs.	%	Zenb. abs.	%	
Azkue (1884- 1951)	Art. 243 Lib. 7 250	82,93 2,38 85,32	31 12 43	10,58 4,09 14,67	293
Orixe (1888- 1961)	130 15 145	31,78 3,66 35,45	263 1 264	64,30 0,24 64,54	409
Barandiaran (1889- 1991)	21 1 22	5,76 0,27 6,04	338 4 342	92,85 1,09 93,95	364
Lekuona (1894- 1987)	306 2 308	67,54 0,44 67,99	141 4 145	31,12 0,88 32,00	453
Aitzol (1896- 1936)	22 - 22	4,27 - 4,27	491 2 493	95,33 0,30 95,72	515
Lafitte (1901- 1985)	133 22 145	50,40 9,01 59,42	93 6 99	38,11 2,45 40,57	244
Zaitegi (1906- 1979)	118 12 130	90,76 9,23 100	- - -	- - -	130
Mitxelena (1915- 1987)	382 1 383	55,04 0,14 55,18	298 13 311	42,93 1,87 45,26	694

koak, etab. Beraz, liburuen titulu-kopuruaren barruan xehetasun guzti horiek ezkututzen dira eta egile bakoitzaren obrak zuzenean ezagutzen ez dituen batek oso uste okerra atera dezake taula horretatik. Lafitterenean, kasurako, euskarazko liburu gehienak liburuskak dira, 100 orrialdez behekoak, 9 gutxienik bai 60 orrialdera ere iristen ez direnak, bilduma dexente, 6 inguru elkar-lanean egindakoak. Eta horrela. Lafittek bere obra nagusia, 489 orrialdeko lan mardula, frantsesez eman zuen, *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)* deitua. Orixe eta Zaitegiaren kasuan, aldiz, euskarazko liburugintzak trataera arras bestelakoa du, horien produkzio-gintzan oinarritzakoa izan baita: Zaitegirenean erabatekoa, eta Orixerenean ia erabatekoa, Martin Oiartzabalekin batera egindako *El lenguaje vasco* ez beste guztiak euskaraz eman baititu. Gainera, hauek ez dira bilduma-lanak edo folklore-bilketak, Azkue, Barandiaran, Lafitte eta Lekuonaren lanetatik dexente halaxe diren bezala, batez ere lehenengo bienak. Honek eskatzen du liburuen kontzeptua bera ondo definitu beharra dagoela egileen bibliografiak prestatzeko orduan, bestela batere baliagarri ez izateko arriskua dute.

Taula horrek oraindik zerbait gehiago ere erakusten du: alegia, autore klasiko horietako batzuek erdaraz burutu dituztela gehienbat beren liburuak: Azkuek 19tik 12, eta Lekuonak 6tik 4. Beste batzuek, berriz, dena erdaraz egin dute. Talde honetan sartzekoa da Aitzol, honek euskaraz libururik utzi ez digulako; neurri batean Barandiaran eta Mitxelena bera

ere bai, lehenengoa bere *Euskalerriko leen-gizona* (1934) aurreko urtean (1933) argitaratutako *El hombre primitivo en el País Vasco*-ren itzulpena delako, eta bigarrena bere *Zenbait hitzaldi* berak *ad hoc* idatzia ez delako, Jose Antonio Letamendiak antolatua baizik, Mitxelenak Donostiako EUTGn 1970ean emandako ikastaroan esandakoak magnetofoiaren eta esku-oharrez hartutakoa paperera aldatuz¹². Beraz, zortziko talde horretatik euskarazko liburugintzara soilki mugatu diren bakarrak Orixe eta Zaitegi ditugu, biak Jesuiten Eskolakoak.

Azkenik, azpimarratzekoa da nola artikulugintzan guztiak, salbu Zaitegi, diren elebidunak. Hemen ere bi talde dauzkagu: batetik, erdaraz euskaraz baino titulu gehiago dauzkatena, hala nola, Azkue, Lekuona, Lafitte (honen kopurua handitu beharrekoa da, *Herria* aldizkarian egindakoak ez baitaude kontatuta, eta asko dira), eta Mitxelena; bestetik, euskaraz baino erdaraz artikulua gehiago idatzi dutenen artean, Aitzol, Barandiaran eta Orixe daude. Harrigarria izan daiteke Orixe zerrenda honetan ikustea. Espelikazio osoa ez bada ere, berak esanda dakigu *Euzkadi* egunkarian egon zenean, zuzendaritzak gaztelaniaz idaztera behartzen zuela. Eta erdarazko artikulua gehienak, izan, organo horretan argitaratuak dira.

Egin ditugun azalpen guzti horiek eginda ere, ez da nahikoa tituluen taula bakarrik aurkeztea. Lehen esan dugu, mota askotako liburuak daudela. Halaber, liburuak ez diren beste lanen (artikulu, sarrera, saiakera, lan monografiko eta abarren) abanikoa oraindik

gehiago zabaltzen da. Horregatik, azken batean neurtu nahi dena idatzizko produkziogintza baita, segidan orrialdeak hartuko ditugu abiapuntutzat. Eta hemen, tituluekin bezala, bakoitzaren euskarazko eta erdarazko ekarpena neurtuko da.

Tituluen taula azaltzean aurreratu da, bide hori testu idatzira hurbiltzeko era bat dela, baina ez bakarra, ezta osoa ere. Orrialdeen arabera antolatutako goiko taula hau horixe bera egiaztatzeraz dator.

Taula horrek bi irakurketa dauzka: bata portzentaiena eta bestea kopuru absolutuena.

Gatozen lehenengora. Tituluen araberako taulan, gehiengo zen bere tituluen erdia baino gehiago euskaraz zeukana, hortik beherakoen artean hiruok bakarrik baitzeuden: Barandiaran, Aitzol eta Orixe. Orrialdeen araberako neurketa honetan, ordea, sailkapen-ordena errotik aldatzen da, zeren hemen ageri baita gehiengoak, seiko talde batek, bere produkzioaren erdia baino gehiago erdaraz eman duela. Talde honen barruan, hiru azpisail osa daitezke: ia dena erdaraz produzitu dutenen artean, buru-buruan, Barandiaran eta Aitzol daude, % 96,88tik % 91,23ra bitarteko tar-tearekin, gero Mitxelena eta Azkue datoz % 69, 88 eta % 62,01eko por-

2. taula: Hizkuntz erabilera orrialde-kopuruaren arabera

	Euskaraz		Erdaraz		Guztia
	Zenb. abs.	%	Zenb. abs.	%	43.010
Azkue	4.046	43,50	5.767	62,0	9.813
Orixe	3.999	83,71	778	16,28	4.777
Barandiaran	253	3,11	7.868	96,88	8.121
Lekuona	2.770	48,61	2.928	51,38	5.690
Aitzol	133	8,84	1.385	91,23	1.813
Lafitte	2.453	49,64	2.488	50,35	4.941
Zaitegi	2.627	100,00	-	-	2.627
Mitxelena	1.306	21,58	.217	69,70	5.523

tzentaiekin eta azkenik, euskarazko produkzioarekin ia parra eginez, Lekuona eta Lafitte % 51,38 eta % 50,35arekin. Bi autore bakarrik dira beren luma euskarari eskaini diotenak, osoki Zaitetik, eta nagusiki Orixek bere % 83,71ko portzentaiarekin.

Guzti honetan ohartu beharreko datua da hizkuntz erabilerari buruzko maiztasunak bi mailatan aldatzen direla: batetik, tituluen arabera taulan, gehiengo euskarazkoan aurkitzen da, orrialdeen arabera antolatuta koan erdarazkoa nagusitzen den bitartean; bestetik, titulu-maiztasunak erdarazko zutabeen kokatzen duen Orixe, orrialdeen arabera euskarazkora ekartzen du. Tituluen orrialdeekiko diferentzia hau, zalan-tzarik gabe, liburuek markatzen dute.

Kopuru absolutuari dagokionez, berriz, esan behar da Azkue bakarrik dela Orixe gainditzen duena bere 4.046 orrialderekin. Justu Orixek baino 47 orrialde gehiago. Itxura batean, datu hau ere harrigarri izan daiteke, baina ez ñabardura hau gaineratzen bada: alegia, Azkueren *Euskalerraren Yakintza* bilduma, elebikoa dena, euskarazko zutabeen sartu dela eta horko 1.762 orrialdeek goratu dutela hainbeste kopuru hori.

Taula hori orotara hartuta, uste dut orrialdeen arabera neurketak askoz ere zehatzago eta zuzenago ematen duela euskal idazlearen irudia. Esan daiteke, euskal idazle nagusiki izan, Zaitegi eta Orixe ditugula. Besteak askoz ere elebidunagoak dira, batzuen erdararako ixuria guztiz nabarmena delarik, bereziki Barandiaran eta

Aitzolen kasuan, eta ez txikia Mitxelenarengan ere.

Orrialdeen arabera taula aztertu ondoren, ageri da tituluen arabera hizkuntz errealitatearen beraren alderdi asko, eta oinarritzakoak, ezkututzen edo, hobeto esan, desitxuratzen dituela. Zehaztasunean urrats bat aurrera emanda, orain ikusiko da orrialde-kopuru horiek testu-masara edo orrialde bakoitzeko karaktereetara itzulita, ea nolako emaitzak ematen dituzten. Bide hau izango da autore bakoitzaren oparotasuna ondoena neurtzen duena, jarraiko taula honetan egingo dugun bezala. (3. Taula)

Taula honek autore bakoitzaren produkziogintza besarkatzen du, testu idatzi hutsa oinarritzat hartuta eta euskaraz ala erdaraz egin den kontuan hartzeke. Hemen ere beharrezkoak dira azalpen batzuk.

Hasteko, bada, taula hori osatzeko izan ditudan zailtasunak aipatuko ditut. Orixe, Barandiaran, Lekuona eta Aitzolen idazlan guztiak argitaratuta daude eta hauekin, ale bakoitzeko orrialde-egitura berdina denez gero, erraza izan da karaktereak zenbakitzea. Barandiaranen tomoak, ordea, ez dira guztiak uniformeak eta horiekin batzbesteko bat ateratu. Mitxelenaren euskarazko idazlanak bakarrik daude argitaratuak eta, barreiaturik dagoen erdarazko materialaren bilketa eta neurketa eskuragaitz gertatu zaidanez gero, euskarazko testu-masaren batzbesteko bera aplikatu dut erdarazkoan ere. Zaitegiren lanak bildumatan jaso gabe baldin badaude ere, bilketa nik neuk osatu dut kontuan

3. taula: Hizkuntz erabilera testu-masaren arabera

	Orrialdeak	Orrialdeko karaktereak	Guztira
Azkue	-	-	-
Orixe	4.777	3.496	16.700.392
Barandiaran	8.121	2.038	16.550.598
Lekuona	5.690	2.738	15.579.220
Aitzol	1.518	3.055	16.700.392
Lafitte	-	-	-
Zaitegi	2.627	2.490	6.541.230
Mitxelena	5.523	2.368	13.078.464

hartuta *Eusko-Gogoa*-ko lan guztiak, gehi liburuak. Hutsik geratzen diren zutabe bakarrak Azkue eta Lafitterena dira, horien lanen barriaduraren handiak horretaraxe behartuta. Zailtasun hauek ondo adierazten dute, nahiz eta beroriek gainditzen ahalik eta gehiena saiatu, kopuru horiek osatu beharrekoak direla eta, informazioa osatu ahala, zuzendu beharrekoak ere bai.

Emaitzak? Itxura batean, hemen ere harrigarriak. Askotan, begiak eramanda, zenbat tomo kontatu, horrela juzgatzen da autore baten oparotasuna. Barandiaranek 22 tomo dauzka, Lekuonak 12, Mitxelenak 9 euskarazkoetan bakarrik, Aitzolek 5, Orixe 3. Beraz, zenbat tomo, oparotasunean hainbeste. Testu-masa neurtuz, ordea, taulak oparotasunaren beste zerrenda

hau erakusten du: Orixe, Barandiaran, Lekuona, Mitxelena, Zaitegi, Aitzol. Datu honek esaten digu Orixe dela, ez bakarrik euskaraz gehien idatzi duena Zaitegirekin batera, baizik eta idazlerik oparoena ere bera dela, orpo-orpoan dituelarik Barandiaran eta Lekuona, eta hurbil Mitxelena.

Bestalde, ez da ahaztu behar, Barandiaran eta Lekuonaren kasuan bederen, bizi-adina benetan handia izan zela, 93 urtetik 102 artekoa eta Aitzoli, ostera, 40 urterekin kendu ziotela bizia. Tartean daude, 70 urte beteta joanak: Orixe, Zaitegi eta Mitxelena. Adinak ere, noski, badu bere eragina produktiogintzaren oparotasunean. Adinak jenioa ez du zorrotzuko, baina produkzioa handitu bai, sasoi garaiko erritmoan ez bada ere.

Barandiaranen 22 tomoak aurrean dituzula, bakoitza 500 orrialde ingurukoa, norbaitek galde dezake nolatan ez den ateratzen testu-masa gehiago. Erantzuna da, orrialdeko karaktereen batezbestekoa besteen aldean apalagoa izateaz aparte, laminek, argazkiek, grafikoeak eta horrelakoak leku handia hartzen dutela ia ale bakoitzean. Areago oraindik, XIX. eta XX. tomoak, adibidez, Euskal Herriko estela diskoideen irudiez soilki osaturik daude. Testu-neurketarako letra idatzia hartu baita irizpidetzat, hara zergatik gertatu den horrelako murrizketa nabaria aipatutako autore honengan.

Azken taula honek, bada, zerbait praktikorik jarri digu agerian: hots, autore bakoitzaren produkzio-kantitatea hurbiletik ezagutzeko parada eta, bide batez, bilduma bakoitzak bere barruko orrialdeak miatzen ez dituen irakurleari ezkututzen dion testu-trinkotasunaren egiakzko kopurua. Esan beharrik ere ez dago, argitaletxeek liburuen bolumena puztu egiten dutela, eta puztu, ez gutxitan, finantza-arrazoiengatik. Adierazgarri da, zentzu honetan, Orixeren 3 tomok, gehi horietan ez dagoen *Urte guziko meza-bezperak*, Barandiaranen 22 tomok adina testu-masa izatea.

Autore klasikoen ekarpena gai-sailkapenaren arabera

Aztertzen ari garen autore hauekin bukatzeko, zenbat produzitu duten ikusi ondoren, gatozen zer sail landu duten aztertzeraz. Honek euskal

kulturari buruzko disziplina-kezken eboluzioa ezagutzen lagunduko digu, jarraiko taulan begiraturaz arakatuko duguna. (4. Taula)

Taula hori ikusita, ondorio nagusien artean, bi iruditzen zaizkit aipagarrienak.

Lehenengoa da, UNESCOk liburu-sailkapenerako ezarritako daukan eredua oinarritzat hartuta, beren garaiko Euskal Herriko pentsamenduaren gidari ziren autore horien kultur produkziogintzak, gaiak orotara hartuta, esparru aski murrizta hartzen duela: 23 gaitatik 9 bakarrik landu dira. Hemen garbi ageri da euskal kultura –eta hau esatean barruan sartzen dut euskaraz nahiz erdaraz egindako euskal gaiei buruzko kultur produkzioa– beste estatu modernoek bezala bere hezkuntza-sistema nazionala eraikitzeko aukera historikorik izan ez duen nazio zapaldu eta minorizatu bati dagokion kultura dela. Guztiz sintomatikoa da, Euskal Herriak ez duela sekula izan unibertsitate-distributurik bere lurraldean, ez Hegoan eta Iparrean. Esparru fisiko honek, hau Durkheim-ek ulertzen duen zentzu morfologikoan hartuta, uste baino garrantzi handiagoa du, zeren goi-mailako euskal inteligentziaren prestakuntza akademikoa emigrazio-egoeran, Zaragozan eta Valladolid-en alegia, egin izan baita. Euskal gizartearekin harremanik gabe eta beren leku naturaletik urruti, arrotza zaion beste kultur giro batean trebatu izan dira euskal gizartea gidatu duten elite teknokratak. Askiz da Pareto, edo Mosca, edo C. Wright Mills, edo Weber irakurtzea, eliteek gizarte baten

4. taula: Autore klasikoen ekarria gai-sailkapenaren arabera

Saila	Gaia	Azpigaia	Zenb. abs.	%
01	Orotarik	Artikuluak, Hitzaurreak, Saiakerak, etab.	816	2,30
02	Filosofia		1.193	3,37
03	Erligioa	Teologia, Aszetika eta Mistika, Biblia, Liturgia, Misiogintza	3.158	8,92
05	Politika	Nazioa eta lurraldea, alderdi politikoak	309	0,87
10	Etnologia	Folklore, Ohiturak eta Usarioak, Arkeologia	11.869	33,52
11	Hizkuntzalaritza	Hiztegia, Gramatika, Metodoak, Soziolinguistika	9.388	26,52
19	Arte Ederrak	Musika, Artearen historia	1.790	5,05
21	Literatura	Sorkuntza, Ahozko literatura, Literaturaren historia, Kritika	5.682	16,05
23	Historia	Geografia, Euskal kulturaren historia, Euskal Herriaren historia	2.984	8,42
		Guztira.....	35.399	100

norabide sozio-politiko, ideologiko nahiz linguistikoa markatzeari dagokionez duten eragin izugarriaz ohartzeko. Honen ondorioak oraindik oso bizirik dauzkagu euskal unibertsitatea geografikoki euskal herrirratua dugun une honetan ere.

Beraz, 9 sailez osaturiko kopuru murriz hori Estaturik gabeko herri

baten emaitza normala da, ezinbestekoa. Gerta zegigukeen gauzarik txarrena gertatu zaigu: inteligentzia lapurtu digutela. Honekin esan nahi da, besteak izan direla gure buruaz, gure nortasunaz pentsatu eta idatzi dutenak, eta etxekoek euskal kulturaz ihardun dutenean, askotan, arestian aipatutako pentsamendu-emigrazioaren ondorioz, arrotzen jokamoldez eta pentsamoldez

ihardun dutela. Eusko Pizkundearen meriturik handienetako bat, hain zuzen, euskal kultura euskal kategorietatik abiatuta pentsatzen hasia izango da. Zentzu honetan, une historikoa da Eusko Ikaskuntzak Oñatiko Batzarrearekin (1918) irekitzen duen ikerketa-perspektiba berria. Testuinguru honen barruan kokatu behar da euskal-dungoaren eskurapen-ahaleginetan elite-zeregina jokatzeko duen zortziko talde hori. Eta gauza bitxia: zortzi horietatik, Mitxelena salbu, beste denak, edo klerigoak dira, edo eliz ikastetxeetan ikasiak.

Bigarren puntu ohargarria da, 9ko gai-sailkapen horren barruan, helburutzat Euskal Herriari bere nortasun-kontzientzia ematean dioten gaiak lantzen direla gehienbat: hots, Etnologia, Hizkuntzalaritza, Literatura, Erljioa eta Historia.

Kopuruaren aldetik, Etnologia eta Hizkuntzalaritza izan dira landuenak, % 33,52 eta % 26,52ko portzentaiekin. Etnologian aipatzekoa da Gasteizko Eskolaren lana, batez ere Barandiaranek bideratutako ikerketa-estilo sistematikoa eta zehatza, arlo desberdinetan aplikatu zuena, hala nola, mitologian (I. tomoa), eusko-folklorearen bilketan (II. tomoa), material etnografikoaren bilketan (III. tomoa), herri-bizitzari buruzko lan monografikoetan (IV. tomoa) eta, bereziki, Euskal Herri zaharrari buruzko espeleologi lanetan (VII-XVII. tomoak).

Lekuona ere, Barandiaranen ildo beretsutik, *Anuario de Eusko-Folklore*-n hasi zen folklore-jakintza lantzen eta, ekinaldi honetan, erakun-

deak, bideak, artzain eta nekazarien kultura, ihauteriak, santuteria, foruak, jaiak, etxebizitza, ipuinak. etab. aztertu zituen, haren II. tomoa osatzen dutenak % 13,65eko portzentaiekin.

Baina oraindik handiagoa da Azkuek, funtsean herri kulturaren biltzaile gisa, egin duen ekarria musika eta literaturan, diogunaren lekukorik adierazgarrienak *Cancionero popular vasco. Canciones selectas armonizadas por el autor* (1919) eta *Euskal Herriaren Yakintza. Literatura popular del País Vasco* (1935-1947) direlarik.

Hizkuntzalaritzaren saila, gehiago edo gutxiago, guztiek jorratu dute, baina ez guztiek ikuspegi beretik eta maila berean. Orixek, adibidez, bere sorkuntza intelektualaren % 12,18 euskararen gramatika-egitura aztertzeari eman zion eta esan dezakegu, erabat asmatu ala ez, intuizio sakonak izan zituela edozein gramatikari darion filosofi edukinari buruz. Azkuek, eta ez gutxi Euskaltzaindiko lehen lehendakari izateak sortzen zizkion arazo praktikoei erantzun beharrak bultzatuta, hizkuntzaren baitan azpigai desberdin dexente ukitu zituen, hala nola, hiztegiak, fonetika, morfologia, gramatika, manualak, euskaraz ikasteko metodoak, euskara batuaren arazoa, euskalkiak, guztien gaintetik aipatzekoak izanik *Diccionario vasco-español-francés* (1905-1906), *Morfología vasca* (1925) eta *Euskal Izkindea. Gramática vasca* (1891) hirukotea, azken hauek baitira, batez ere, haren sail honetako emaitza % 56,49ra goratzen dutenak. Azkuek bezala, Lekuonak ere bere esku izan

zuen Euskaltzaindiaren gidaritza 1960ko hamarkadan (1967-1970), baina honen euskal gramatikari buruzko ikerketak Gasteizko Seminarioan (1916-1936) egindakoak dira, batipat, orduan landu baitzituen, didaktikaren aldetik bereziki, aditzari buruzko ikasgaiak eta beste gai puntual batzuk. Honen euskaralogi lanak VIII. tomoan bildurik datoz eta, guztira, % 10,32 egiten dute. Lafitteren lanak behar bezala sailkatu gabe baitaude oraindik, ez dut koantifikatzeko modurik izan; hala ere, ezin da aurrera segitu horren *Grammaire basque. Navarro-Labourdin Littéraire* (1944) obra gaitzaren berri eman gabe, egun ere arras aiputan hartua baita, berrargitalpena egiteraino. Zaitegirenean, hizkuntzarekikoak toki gutxixeago du, guztizkoaren % 8,22 zehazki, eta honen barruan lan sakon bat gogoratzekotan, *Adizki berenkoiak Olabide'ren Itun Berri'an* izenekoa ekarriko dut gogora, Aita Olabideri eskainitako ale monografikoan argitara emana¹³. Barandiaranek, zuzenean hizkuntzaz ihardun ez bazuen ere, gaur egun fonetikan espezialista direnek asko estimatzen dute herriko ohiturak eta ipuinak ahoz-ahoz jasotzerakoan hark erabilitako transkribaketa-metodoa, belarriak jaso bezala inolako aldaketarik gabe jaso baitzuen. Horregatik, altxor preziatua da euskal folkloreaki buruz egindako haren bilketa-lana, II. tomoan datorrena.

Hizkuntzalaritzari orrialde gehien eta, zalantzarik gabe, espezializatuena eskaini dizkiona, ordea, Mitxelena izan da, profesioz linguista izaki, berak hornitu baitu neurri handi batean zehaztasun akademikoaz euskaralogia, Julio Urquijok Oñatiko Batzarrean

arrazoiz salatzen zuen bezala, etxeko espezialista profesionalen eske zegoena. Euskararen drama zen, espezialistak atzerrian zeuzkala, euskara ondo menderatzen ez zutenak, eta etxekoek euskara sakonetik ezagutzen zutela, baina ez zirela hizkuntzalaritzan analista profesionalak. Bi baldintza horiek osoki beteko dituen lehen linguista eta filologo profesionala, beraz, Mitxelena izango da. Egun etxeko hizkuntzalariek gogo onez aitortzen diote maisutza euskararen ikerkuntzari dagokionez, esanez bera dela euskal linguistika eta filologiaren oraingo oinarriak ezarri dituen eta, gainera, euskararen iker-arlo gehienak ukitzera iritsi dena. Hor daude lekuko gisa arlo desberdinetan egindako haren lanak: a) onomastikan *Apellidos vascos* (1953); b) euskararen iraganari dagokionean eta fonetikan, *Apellidos vascos* (1953), *Lenguas y protolenguas* (1962), *Sobre el pasado de la lengua vasca* (1964), *Textos arcaicos vascos* (1964) eta, batez ere, *Fonética histórica vasca* (1961), bere tesi doktora; c) hizte-gigintzan, Landuchio-ren hiztegiaren argitalpena (1562), M. Agud-ekin batera, eta, batipat, burutu gabe utzi zuen *Orotariko Euskal Hiztegia*, guztia argitaratuko denean, Azkuerena osatuko duena.

Ikusi dugu Aitzolek oso gutxi idatzi zuela euskaraz eta, egia esan, idatzi zuen apurra ere nahikoa modu traketsen. Hala ere, aitortu behar da gaurko Soziolinguistikak hari zor dizkiola hizkuntz gatazkari buruzko lehen gogoetak, *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa* (1935) saiakeran landu zituenak eta II. tomoan bilduta

daudenak, eta jakin zuela garai hartan Europan indarrean zeuden hizkuntz teoriak euskal kasura ekartzen; honela, Joxe Manuel Odriozolak¹⁴ ondo zehazten duen bezala, hurbil-hurbiletik arakatu zituen hizkuntza baten ordezkapen-prozesuan Estatuak duen eragin asimilatzailea eta, alternatiba gisa, gizarte-statusaren plangintzan elebitasunak izan zezakeen eginkizuna; zentzu honetan, esan dezakegu, Iñaki Larrañagarekin¹⁵ batera, arlo honetan aintzindari izan zela.

Etnologia eta Hizkuntzalaritzaren ondoren, Literatura da gairik landuena % 16,05eko portzentaiarekin. Hemen ere, Aitzol eta Barandiaran izan ezik, beste guztiek parte hartu dute modu batera nahiz bestera eta komeni da pixkat bereiztea zertan izan den berezia bakoitzaren ekarria eta zein neurritan bereizgarria. Mitxelenak euskal literaturaren historia eta literatur sorkuntzaren kritika landu ditu, literaturaren bi alderdiok batipat, lehenengoa *Historia de la literatura vasca* (1960) liburuan eta hainbat aldizkaritan, orain IV. eta V. tomoetan jasota datozenetan, eta bigarrena liburu-kritikagintzan eta hitzaurreak egiten. Azken lan hau, agian beste inork baino zorrotzago, *Egan*-en burutu zuen nahikoa modu sistematikoan 1954-1967 epealdian zehar eta, II. eta III. tomoetako aurkibideak arakaturaz, ageri da 142 liburu-kritikaren zerrenda osatzen dela guztira. Lafittek, nahiz eta honen ekarpena hainbeste zehazterik eta zenbatzerik ez izan, badakigu Mitxelenaren bi alderdi horiexek harrotu zituela, literatur sorkuntza ere bai zertxobait; hala ere, lanik serioena euskal literatura klasi-

koaren inguruan egina du, *Eskualdunen Lorategia* (1931) liburuan. Lafitteren literaturari buruzkoak Patri Urkizuk bildu ditu eta argitara eman *Euskal literaturaz* izenarekin, klasi-koen sailean¹⁶. Lekuonak denboraldi batez kritikari-lana bete izan bazuen ere Egan-ek horretarako zeukan sailean, gehiago nabarmendu izan da sorkuntza-mailan, haur-literaturan eta konta-poesian, bereziki, *Iesu Aurraren bizitza* (1948) antzerkitxoan eta *Txuri eta gorri kikirriki* (1973) ipuinean ikus daitekeen bezala. Baina, oro har, sorkuntzatik ez du asko, % 5,73 ozta-ozta.

Literaturan aipamen berezia merezi dutenak, eta askorengatik baina ez arrazoi berdinarengatik, Orixe eta Zaitegi dira. Zaitegirenean literaturak leku handia hartzen du, hots, % 37,64 sorkuntzazkoak eta itzulpenak batera hartuta. Haren izena aipatu orduko, asko dira berehala kalifikazioka hasten direnak: jakintsua bai, baina greziar filosofian murgilduegia; euskara asko zekiena bai, baina ulergaitza, Mitxele-narekin (17) esateko “gogor antxa” ez denean. Dena den, *Goldaketan Atzerri, euskalerra* (1946) eta *Berriz ere goldaketan* (1962) poesi liburuetan egiazko poeta batekin egiten dut topo, poesiak edukinez mamitzen eta formaz dotoretzen ederki dakien poeta apal eta barrenkoi batekin. Erreterian sari-tutako “Tori nire edontzia” poemak garaiz eman zuen Zaitegi poetaren neurri igoa. Zaitegirekin kidesasunik baldin badu ere, batez ere, jesuiten pedagogiatik zetorkien greziar pentsamenduarekiko erreferentzian, Orixe beste enbor bateko ezpala da, klasiko hauen artean literaturaren sail

hau gehien aberastu duena, bere produkzio osotik % 19,90 literatur sorkuntza garbiam urtu baititu eta euskal literaturari buruzko histori eta kritika-lanetan % 24,19; azken lan hauek III. tomoan datoz. Eta, gainera, alderdi askotatik begiratuta aberastu du. Lehenik, bera izan da, inor izatekotan, euskal literatura urrezko orritz jantzi eta oparotasunez hornitu duena, poesia nahiz prosa maisuki erabili dituen. Haren sorkuntzazko liburuetan, I. tomoan biltzen direnetan, denak dira aipatu beharrekoak, poesian nahiz prosan, *Euskaldunak* poema handiaren, edo *Barne-Muinetan* poemtxoaren, edo Amerikan ondutako poesia solteen artean hautaketa bat egitea ez baita batere erraza, ez bederen neretzat, errazagoa ez den bezala *Quito-n arrebarekin* ala *Jainkoaren billa* zein lehenetsi jakitea. Bigarrenik, euskal klasiko zaharrak orduko euskaltzale gehienentzat ezezagunak ziren garaian, berak sistematizatu zuen euskal literaturaren historiari buruzko lehen xorta *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra* (1927) saiakera sarituan. Hirugarrenik, Orixerenak dira literatur kritikaren gainean egindako lehen saioak, 1936ko gerrate aurreko poesi goraldean nahikoa sistematikoki argitaratu zituenak aldizkari desberdinetan; harenak, halaber, estetikari buruzko lehen saiakera, hau ere sistemaz burutua *Euzko-Gogoa*-n.

Erljioak eta Historiak antzeko portzentaia daukate: % 8,92 eta % 8,42, hurrenez hurren. Lehen sail horretara irauli direnak, Zaitegi eta Orixe ditugu. Arrasatekoa dextente, % 14,80ko portzentaiarekin; honek El

Salvador-eko Seminarioan Biblia erakusteko prestatutako gaiez baliatuz argitaratu zuen *Bidalien eginak*, erdi-ofizioz beraz, eta Orixek (18) liburuen hitzaurrean esan duen bezala, lehendabizi latinez idatzi zuen –seguru asko eskolak hala emango zituen– eta gero euskaraz jarri argitaratzeko. Nolanahi ere, liburu horretako kapitulu gehienak, ordea, lehendik *Euzko-Gogoa*-n zatika emanda zeuzkan eta honek biderkatzen du goian emandako portzentaia. Aizolen obran oraindik neurri handiagoak hartzen ditu erlijio-gaiak, funtsean misiojintzari buruz dihardutenak, eta horiek guztira, % 18,97ko portzentaiarekin, IV. tomoa osatzen dute. Lan hau ere, Zaitegik bere irakasletzakoa bezala, eliz administrazioak eman zion karguaren ondorioz egin du, misioak antolatzeke ardura eramane baitzuen Gasteizen, Angel Sagarminaga-ren ondoan, 1923-1929 epealdian zehar, eta orduan idatzi zuen artikulu-andana bat, 53ren bat inguru, *Unión Misional del Clero de la Diócesis de Vitoria* eta berak sortutako *Nuestro Misionero/ ^Gure Mixiolaria* (1924-1929) aldizkarietan.

Orixerengan ordea, ofiziokoa baino askoz areago, zerbait absolutua ere bada erlijioa, honek baldintzatzen baitu haren bizitza pertsonala nahiz irizpide estetiko eta honek esplikatzeko duen haren produktiojintzaren erdia baino gehiago, % 51,93ko portzentaiarekin, erlijio-gaiek hartzea. Erljiozko gogoetak, –haren ustez, gizakiarentzat objektu formalik igoena horixe baita–, berez ederresten du edozein sorkuntza-mota, poetikoa nahiz bestelakoa, eta hori jakin eta gero ez da batere harri-

garria gertatzen haren sorkuntzazko idazlan nagusiak (*Barne-Muinetan, Poesia solteak, Quito-n arrebarekin, Jainkoaren billa*) berdin itzulpen gehienak (*Agustiñ Gurenaren aitorkizunak, Itun Berria, Salmutegia, Benito Santuaren erregela, Urte Guziko Meza Bezperak*) trataera teologiko-mistikoa oinarrituta ikustea. Erljioa zeukan guztien gaintetik ezarrita, *Santa Kruz apaiza* liburuaren azken kapituluaren dakarren bezala: “Jainkoaren lege ta euskera nai ditut Zuretzat, Ama Euskalerrria: gañerakoa Jainkoaren kontu. Bera baita errien jabe ta jaun” (19). Beraz, Orixerentzat, nola idatzi bezain garrantzitsua edo, zuzenago esanda, garrantzitsuagoa da zertaz eta zer idatzi. Badira esaten dutenak, eta hauen artekoa nauzue, Orixe Orixeago dela poesia mistikoetan epikoetan baino. Hala izan ala ez, uka ezin dena da gai erlijiosoak lehenesten zituela, eta espreski gainera, sorkuntza estetikorako.

Erljioaren ondo-ondoan, % 8,42ko portzentaiarekin, Historiaren saila daukagu. Ikerketa hertsiki historikoak izan, Lekuonarenak dira, gerrate ondoko Kalagurriko erbestaldian eta gero, Lasarteko ezkutualdian, burutu zituenak. Kalagurrin bertako diozesiko artxibari izendatu baitzuten, parada ezin hobea izan zuen hango diozesiko eliz historiak jorratzeko. Lasarteko egonaldian ere beste hainbeste egin zuen, hots, lekuko artxiboetan oinarrituta, bertako parrokia eta komentuaren historia idatzi. Lan hauek, guztira, 4 tomoko (IV-VII) emaitza mardula osatzen dute, Lekuonaren ikerketa-bizitzan epe guztiz garrantzitsua betetzen dutena.

Aitzolen ekarria historiaren sailean kokatu badugu ere, hobeto dagokio, euskal kulturaren azpisaila. Jadanik onartua da Aitzolek, Eusko Pizkundeko euskal kulturaren eta kristau-gizartegintzaren eragile gisa, lumaz eta ekintzaz, erakutsitako protagonismoa gerrate aurreko herri-mugimenduan, bereziki 1930. urtetik aurrera. Horregatik, 1930-1936ko epealdi-barruan argitaratutako hainbat artikuluk bi tomo sendo (V-VI) egiten dituzte, haren produkzio osoaren % 67,29 direna, eta artikulua horietan, sakontasuna baino gehiago, egunero-kotasunari darion freskura estimatzen da, gizartean etengabe egosiz doan eztabaidaren hariari jarraitzeko bide ematen baitu. Eta iturri hau, gaurko soziologia koalatiboaren ikusmiratik begiratuta, oinarritzotzat jotzen da. Aparteko pentsalaria ez bada ere, hara zergatik bilatzen den Aitzol berreskuratu beharreko norbait izatera.

Azkenik, goiko taula hartan, Arte Ederren, Filosofiaren eta Politikaren sailak ere badatoz, baina hiruetan oso portzentaia apalekin. Honek esan nahi du gutxi urratu direla sail horiek. Hala ere, Arteari dagokionez, egindako apur hori, % 5,05, osoki Lekuonari zor zaio eta bakarrak egiteko ez da gutxi. Berririo, hemen ere, bizitzak aurrean jarritako abaguneak ematen dio bide sail hori lantzeko aukera, zeren, batetik, Gasteizko Seminarioan Arkeologia Sakratua erakustek eta, bestetik, parrokiatako arte-lanen ikuskaritza bere kargu egoteak, obrak lekuan ikusiz, teoria eta praxia elkartzeko bideak ireki baitzizkioten. Espezialista ez izanik ere, arte-gaietan begi zorrotzekoa zelako, horregatik da

interesgarri haren III. tomoa, *Arte-izti* izenarekin datorrena.

Filosofiaz egindako ahalegina, bere murritzasunean garrantzitsua da, Zaitegik eta Orixek eginak, bien artean % 3,37ko portzentaia egiten dutelarik. Idatzi, askoz gehiago idatzi du Zaitegik, sail horretan gehiena: % 39,32. Guatemalako Unibertsitatean filosofi irakasle izan zen 1946an eta han landu zituen greziar klasikoak eta hauen artean, bereziki, Platonen filosofia eta presokratikoak. Greziar pentsamenduaren ildotik doaz haren obrak: *Platon' eneko atarian* (1962), eta gero *Platon-en elkar hizketak* (1975-1979), bost tomotan euskaraz argitaratuta. Orixeren filosofiarekiko apostua ez doa inorena itzultzetik edo azaltzetik, euskararen erraietatik abiatuta, filosofia euskal kategorien bidez pentsatzetik baizik, uste baitzuen, lehen esan bezala, Gramatika zela Filosofiaren abiapuntua. Nekez eta kostata, baina ausartu zen filosofia bere kabuz egitera. Baina saiakera hura motz geratu zitzaion eta ondorengoek haren bideari aspalditxo egin zioten muzin.

Politikaren sailean, berriz, Orixeren *Santa Kruz apaiza* liburutxoari dagokiona da % 0,87ko portzentaia ez-deus hori. Baina balio, gaiaren trataerarengatik baino gehiago balio du kontalari gisa erakusten duen herri-hizkuntzaren erabilera apartarengatik.

Talde-lana eta hizkuntz erabilera

Talde-lanean, noski, ekintza-mota asko sartzen dira; gu, ordea, kultur

aldizkarietara edota idatzizko produkzioa sortu duten kultur plataformetara bakarrik mugatuko gara. Hemen lehen galdera nagusia da Eusko Pizkundeak nolako plataforma kolektiboak sortu dituen eta zein hizkuntzatan nagusiki; bigarrenik, euskaltzale horiek zer ekarpen berezi egin duten arlo honetan.

Euskal fuerismoak eta nazionalismoak, foruak galdu eta gero, euskal kulturaren adierazle nagusi diren elementu bereizgarrienen berreskurapenari ekin zioten. Eta horien artean, teoriar bederen, gizarte modernoak hiri-guneetatik nekazal gizarteko sektoreetara bultzaka baztertuz zeraman euskararen aldeko kontzientzia kolektiboa sortu zen garaiko euskaltzale foruzaleen nahiz nazionalisten artean. Diogunaren froga dira Hego zein Ipar Euskal Herrian eratzen diren aldizkari, organo, elkarte, erakunde eta mugimenduak, helburutzat dutenak euskal kultura eta euskara bultzatzea. Amankomunean helburu espezifiko hori duten arren, jatorri desberdinekoak izaki, horien filosofia eta garapena ere ez dira uniformeak izango, ezta, hizkuntz plangintzaren aldetik, garrantzi berekoak ere. Kultur plataformen artean, gainez gain, bereizi beharrekoak iruditzen zaizkit kultur plataforma laikoak eta klerikalak eta, bidenabar, horien artean landuak eta herritarrak. Dena gainbegiratu (20).

Lehenik, kultur plataforma laikoe-tara etorrira, mugimendu edo alderdi politikoaren inguruan garatu den kultur produkzioaren egarritza begiratu bada, konstatazen da politikariek erabili

duten hizkuntza gaztelania izan dela, erabat ez bada ere, bai nagusiki. Madrileko *La Paz* egunkariarekin (1876) hasi eta, Foruzale liberal foruzaleen aldizkariak osoki gaztelaniaz argitaratu ziren, hala nola, Gasteizen *Revista de las Provincias Euskaras* (1880), Fermín Herrán-ek zuzendua, eta Iruñeko *Revista Euskara* (1883), *La Unión Vasco-Navarra*, *El Arga* (1882-86) eta *El Lauburu* (1882-86). Zer esanik ez Bilboko sozialisten *La lucha de clases* (1894), euskaltzaletasunari hainbeste eraso zion aldizkaria.

Baina nazionalisten prentsan ere, euskarari tarte gehixeago ematen bazaio ere, nabari-nabaria da euskarak pairatzen duen egoera diglosikoa *Euzkadi* aldizkarian (1901-1915) eta geroko *Euzkadi* egunkarian (1913-1937). PNVko *Aberri* (1919) astekari eta *Euzkerea* (1929-1936) hilabetekariako lankideak, politikaz Comución Nacionalista-koak baino errotikoagoak izanik ere, ez ziren besteak baino finago ibili hizkuntza-kontuan: puristago bai, oparago ez²¹. Euskal nazionalismoaren barruan abertzale-talde batek sortutako JELeK (1907) ere, gehiago dakar gaztelaniaz euskaraz baino. Oro har, Bizkaian aldizkari politizatuak dira nagusi.

Gipuzkoan, *El Día* (1930) izan zen Bizkaiko *Euzkadi*-ren bertsio nazionalista, Pio Montoia eta Aitzolek halaxe nahi izanda, PNVren disziplinatik aske funtzionatu zuena. Gerrate aurreko euskal literaturari buruzko lehen kritika-saiotxo gehientsuenak bertan agertu ziren, Orixe, Jautarkol, Lauaxeta, Barrensorok eta beste

batzuek egin zituztenak, guztiak oinarrizkoak gure literatur kritikaren ulerpenerako; baina ia guztia, artikulupare bat salbu, gaztelaniaz idatzia da.

Bigarrenik, euskararen plataforma hertsiki kulturaletara mugatuta, aipatzekoa da, Iruñean, “Asociación Euskara de Navarra” (1877) izeneko kultur mugimendua, Artuto Campion eta Juan Iturralde sortu zutena, euskara eta euskal kultura euskal lurralde osoan zaindu eta indartzeko helburuarekin; erakunde horren *Revista Euskara* (1878-1883) aldizkaria, ordea, gaztelaniaz kaleratu zen.

Hirugarrenik, instituzio mailan, Donostiako Diputazioan antolatzen da seguru asko garai hartako kultur mugimendurik bizkorrena eta, bide batez, euskaldunena, hortik zabaltzen baitira, Jose Manterolaren adoreari esker, euskal kulturaren eta euskararen aldeko lehen ekimenak, hala nola, “Euskal Lore-Jokuen Batzarrea” (1882) bezalako herri-ekintza emankorrrak eta kultur aldizkarien argitalpena. J. Manterolak sortu zuen, kultura landuaren mailan eta jadanik politikoki hila zen Fidel Sagarminagaren tradizio politikoaren ideologi esparrutik, *Euskal-Erria* (1880-1918); honi segida *Euskalerrriaren Alde* (1911-1931) hilabetekariak ematen dio, Gregorio Mujikak zuzendaritzapean, eta bi horien herentzia intelektuala, berriz, *Yakintza*-k hartzen du 1933an, aurkezpenean Aitzolek espreski dakarren bezala²². Kultur aldizkariarekin segituz, aipatutako hirukote horren lerro beretsuan aurkitzen da *Euskal-Esnalea* (1908-1931) hilabetekaria, izen bereko elkartearen organoa eta,

besteak bezala, hau ere Diputazioaren babesean argitaratua. Oro har, euskal kulturaz diharduten aldizkari guztiok, esan behar da, funtsean erdaldunak direla, euskarazko lanak oso bakan aurkitzen baitira horko orrialdeetan. Gauza bera gertatzen da *Gure Herria* (1921) bihilabetekariarekin, Baionan.

Baina politika instituzionalak emandako kultur emaitzarik garrantzitsuena, ekintza berean lau Diputazioak bateratzen dituen, esango nuke 1918an Oñatin egindako Eusko Ikaskuntzaren I. Batzarra dela, hor finkatzen baitira euskal gizarteari dagozkion arazo desberdinak maila akademikoan sailkatu eta zehaztasun zientifikoz aztertzeko lehen zimentuak. Euskal Herriak ez baitu bere Unibertsitaterik, honen ordezkioak egiten ditu praktikan eta horregatik suposatzen du, hain zuzen, urrats koalitatiboa euskal kulturaren historian. Baina horrek ere oinarrizko akats bat zeukan, oso larria, eta zen erdaraz funtzionatu izan duela ordutik honako historian zehar, erakunde horren barruan euskaltzale asko eta asko egin diren arren, hala nola, Azkue, Campion, Urquijo, K. eta B. Etxegaray, Eleizalde, Barandiaran, Lekuona, Lizardi, etab., gerrate aurrean. Eta ondoren ere, berdin.

Ez bakarrik disziplina zientifikoen trataeran, hizkuntzari buruzko lan espezifikotan ere euskara ausente nabaria da. Oñatiko Batzarretik sortutako Euskaltzaindia (1919) erakundearen lanak, ikerketak eta aktak jasotzen dituen *Euskera* aldizkariaren orrialde gehienak, gerrate aurrean eta ondoko lehen urteetan, erdaraz zetozen. *Euzko-Gogoa*²³ ez

zen geratu Euskaltzaindiaren jokabide elebidun hori salatu gabe. Dena den, euskaralagian espezializatutako Urquijoren RIEV (1907) aldizkariak ere erdara darabil gehienbat.

Laugarrenik, klerigoek egindako kultura idatzian, bi maila bereizi behar dira: landua eta herri xeheari zuzendutakoa edo, zehatzago esanda, espezializatua eta periodistikoa.

Lehen sailean Gasteizko tradizioa dago, ezagunenak aipatzeko, Aitzol, Barandiaran eta Lekuonak sustatu zutena. Aitzolek, Angel Sagarminagarekin batera, *Nuestro Misionero/Gure Mixiolaria* (1924-1929) argitaratu zuen, dena gaztelaniaz idatzia, salbu sarrera, eta hau Aitzolek berak erdaraz egin eta Lekuonak euskaratua. Barandiaranen zuzendaritzapean argitaratu ziren *Gymnasium* (1927-1942) eta *Idearium* (1934-36) aldizkariak, eta hauetan ere, artikulua banaka batzuk salbu, beste guztiak gaztelaniaz datoz.

Herri xehearentzat idazten dutenen artean, apaiz euskaltzaleen aldizkariak daude, helburu aldi berean pastoralak eta kulturalak dituztenak. Herri-literatura xehe honetan sartzekoak dira, besteak beste, Azkueren *Euskaltzale* aldizkaria, “Jaungoiko-Zale” (1912-1932) elkartearen izen bereko aldizkaria, *Eleiz-Orria* (1917), eta *Ekin* (1932) asterokoa, Zeanuriko Euljio Gorostiaga apaizaren *Arrati'ko Deya* (1931) hilabetekaria. Hori Bizkaian, eta Gipuzkoan, berriz, beste honako hauek: *Argia* (1921-1936) astekaria, Biktor Garitaonandia apaizaren zuzendaritzapean, Gipuzkoa osoan

euskaraz egin zen aldizkari bakarra. Ipar Euskal Herrian, halaber, antzeko egitekoa bete zuen *Eskualduna* (1887-1907) aldizkariak.

Klero erregularrari dagokionez, jesuiten *Jesus'en Biotzaren Deya* (1917-1936) eta Nafarroako kaputxinoen *Zeruko Argia* (1919-1936) dauzkagu. Lehenengo aldizkari horretan ematen dituzte beren lehen urratsak Orixek eta Zaitetik, eta hortik sortuko da euskarazko lehen kultur plataforma, *Euzko-Gogoa*-ren inguruan, eskola berezia izatera iritsiko dena eta, agian, kalitatez eta prestakuntzaz jantziaren garai hartan.

Gerrate aurreko euskal kulturari errepasso labur hau eman ondoren, ageri dena da, batetik, helburu zientifikoak dituen kultura landua ia erabat erdaraz egina dela sektore laikoan bezala erlijiosoan ere. Eta elite batentzat egina. Elebitasun diglosikoa da hor nagusi. Euskarazko organoen irakurlea, aldiz, herriko bezero xumea da, baserritarra, arrantzalea eta langilea, euskara eguneroko bizitzan erabiltzen duena. Dikotomia, beraz, garbia da: euskarak ez du lekurik kultura landuan, duen apurra periodismoan du.

Gerrate ondoan ere, euskarak erbesteko urte luze bezain ilunak bizi izan behar izan zituen urte haietan ere, apenas aldatzen den euskarari buruzko erabilera.

Hego Euskal Herrian, frankismoak euskal instituzioak oro bereganaturik zeuzkanez gero, konprenitzekoa zen horien babesean sortutako euskal gaiei

buruzko aldizkariak erdaraz argitaratzea, hala nola, *Príncipe de Viana* (1940) Iruñean, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* (1945) eta *Munibe* (1949) Donostian. Barrukoen aitzakia horrek ez zuen balio kanpoan zeudentzat, teoriarik bederen. Gauza jakina da, zapalkuntzak uxatuta, euskal kulturaren plataforma berriak erbestean sortzen direla eta, hemen, batez ere Ipar Euskal Herrian. Kultur aldizkarien artean, hiru dira aipagarrienak: Barandiaranek sortutako *Ikuska* (1946-1948), Gasteizko *Anuario de Eusko-Folklore* (1921-1936) aldizkariari segida ematen diona, eta *Gernika Eusko-Yakintza* (1947-1958), RIEVen errelebua hartzea duena; hirugarrena, *Gernika* (1945-1953) da, Rafael Picavearen inguruan sortu eta Fagoagak zuzendu zuena. Hiru hauek, erdara da nagusi, eta askogatik. Gerrate ondoko eztabaidarik interesgarrienak euskararen inguruan, 1940ko hamarkadan, azken aldizkari horretan eman ziren, eta dena gaztelaniaz. Politikoen aldizkariak ere halaxe argitaratu ziren, horien artean *Euzko-Enda*. Berdin erbestean zeuden euskal apaizen ixilpeko *Egil-billa* eta *Egiz* orri salatzaileak.

Zentzu honetan, Jokin Zaitetik Guatemala urrunean sortzen duen *Euzko-Gogoa*-k, oraindik behar adinako garrantzia ematen ez zaion data historikoa markatzen du euskal literaturaren eta, bereziki, euskarazko kulturaren historia guztian, orduan jantzen baitu euskarak, lehen aldiz, kultura landuaren soinekoa. Non, eta Guatemalan, euskal gizartetik oso urruti. Heriotza ere hortik etorri

zitzaion aldizkariari, ez hainbeste bere lanen administratzaile eta zabaltzaile txarra izan zelako, askoz gehiago herri-giroaren babes falta izan zitzaiolako. Arraina hil egiten da uretatik kanpora. Eta, zentzu honetan, zerikusirik badu Donostiako Diputazioaren hegalpean sortutako *Egan* (1948) aldizkariak, sortzez elebiduna izanik 1953an euskarazko elebakar bihurtu zenak, zeren, Zaitegirenak erbesteko euskaltzaleak bildu zituen bitartean, Donostiakoak, batez ere Mitxelenaren itzalari esker, etxeko idazleak erakarri baitzituen eta gerrate ondoko belaunaldi berriari sarrera eman baitzion. Askok gara 1960ko belaunaldikoen artean euskal kulturarako txartela hari zor diogunak. Mitxelenak berak, bestalde, hain berea zuen plataforma horretan eman zituen bere euskarazko lan gehienak.

Euskarazko hirugarren kultur aldizkaria *Jakin* da, Arantzazuko ikasleek 1956an sortua kultur gaiak lantzeko xedearekin. Inon izatekotan, horren eboluzioan ageri da ezin hobeto nola eman den nazionalismo zaharretik berrirako pausoa. Lehen fasean (1956-1958), *Euzko-Gogoa*-ren irizpide ideologiko eta linguistikoak ditu gidari bakar, batez ere Orixe; 1959. urtetik aurrera ordea, Joseba Intxaustiren zuzendaritzapean, norabidez aldatzen du, pentsamenduari dagokionez Europako modernismoari ateak irekiz eta euskararen batasunari dagokionez, berriz, Euskaltzaindiaren irizpideak onartuz. Aldizkari honek aurreko beste biek ez duten berezitasun bat du, eta da bertan idazten dutenak seminario eta komentuetan eskolatutako belaunaldi berrikoak direla eta, lankide asko eta

gazteak bereganatzean, horiek izan direla 1960. urtetik aurrera euskal kulturgintza landua gehien bultzatu dutenak. Luma asko pasa da *Jakin*-etik: 1956-1981 epealdian, 294 idazle²⁴. Garai honetan, eta bereziki aldizkari horren inguruan, gauzatu zen bi belaunaldien, gerrate aurreko eta ondorengoaren, arteko erreleboa. Euskal kultura euskaraz egindakoa dela, Zaitegiren hasierako tesi irmo hura, orain sendotzen da praxiaren bidez. Belaunaldi honek aro berri bat inauguratzen duenez gero, beste baterako uzten dut, oraingo lan honek bere mugak autore klasikoetan ditu eta.

Euskal nazionalista eta euskaltzaleen elebitasunaz gogoetak

Konstatazio hutsaren zolatik abiatuta, zer erakusten digu euskaltzaletasun historikoak bere ibilaldi luze honetan? Erantzunaren muina jadanik emana daukagu aurreko orrialdeetan, baina goazen, hizkuntz erabileraren mailak bereiziz gero, erantzun posibleak zehaztera.

Lehenik, euskaltzaletasunaren praxia euskal nazionalismoaren jokabidera mugatuta, esan dezakegu jeltzaleak errazago lerratzen direla erdarara euskarara baino batzokietako beren bileretan nahiz eguneroko harremanetan eta joera hori, Kirikiño-k 1923ko artikulua batean dioenez, aski orokorrera zen bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna errotuenik zeuden probintzietan, hain zuzen: “Eurrez ikusten doguz aspaldiko urteetan abertzale zintzo-zintzoak, euskal-

dunak, beti erderaz itza dariotela, alkarregaz izketan euskaldunak eta abertzaleak diranak egon arren. Uar au edonok egin leike Bizkaian eta Gipuzkoan, uri andietan eta txikietan. Euskeraz bakarrik egiten dan uri asko ta askotako JEL-batzokietan Espainiako erderatxua baiño ez da entzuten geienetan”²⁵.

Testu hori idatzi duena, Mañariko Ebaristo Bustintza jauna, ez da nornahi, bere garaiko lekuko aparta baizik, bere alderdi politikoaren urratsak oso hurbiletik eta leku pribilejiatutik segitu zituena, *Euzkadi* egunkarian euskal orria, “Euzkel Atal” izenekoa, zuzentzen hamabost urte (1913-1928) egin baitzituen, organo hori sortu zen urtetik hasi eta bere herrira erretiratu zen arte. Bazekien, beraz, zer esaten zuen.

Jakina denez, Orixek hartu zion testigua Kirikiñori, lanbide berean hiru urte (1928-31) egin zituelarik. Orexarraren lekukotza ere jakitekoa da, Lizardiri egindako gutun batean hauxe idazten baitio 1929an: “*Euzkadi*’koak adiskide-antzen asi dira nerekin. ‘Temas Vascos’ argitaratzeko adierazi didate (erdaraz) eta etsi egin bearko”²⁶. Orixeren salaketa antzeko kezu horretan egunkari nazionalistaren euskararekiko marjinazio-politika nabari da, lehen esan bezala, zuzenean bere luma ere ukitzen duena. Horrela esplikatzen da, neurri handi batean bederen, Orixeren artikuluko gehienak, lehen aipatutako % 64,54 hura, erdaraz egina izatea, zeren titulu eta orrialdeetan lankidetzarik oparoena *Euzkadi*-ri eskaini baitzion, lanbidez eskaini, noski. Organo jeltzalearen

hizkuntz politika, hain zuzen, horixe zen: euskal gaiak landu bai, baina gehienbat erdaraz.

Horregatik, Pruden Garziak egiten duen hipotesiarekin bat egiten dut, dioenean bai fuerismoak eta bai euskal nazionalismo historikoak euskararekiko ahulezia erakutsi duela eta, praxi mailan, desoreka izugarria ematen dela helburu politikoaren eta linguistikoen artean, azken honen kaltetan: “... garbi ondoriozta daiteke partidu politiko nazionalisten (edo aurrenazionalisten, foruzaleen kasuan) erretorika euskaltzale ofizialaren azpitik, partaideen eguneroko praxia sarritan guztiz erdaltzalea zela, zenbat eta gorago karguetan, areago ziur aski. Ez fuerismoa, ez nazionalismoa, eguneroko praxian ez ziren gauza izan euskararen minorizazioari aurre egiteko”²⁷.

Bigarrenik, politika-esparrua utzi eta euskaltzaleen kulturagintza landura etorrita, hemen ere konstataziorik egin dugu:

a) Euskal gizarteari dagozkion disziplina akademikoak, “euskal gai” deitu horiek, erdaraz landuak izan direla gehien-gehienak, horretarako sortutako bai erakundeetan eta bai aldizkari espezializatuetan. Salbuespenaren ataka historikoa, esan bezala, *Euzko-Gogoa*-k irekitzen du.

b) Areago oraindik, euskal linguistikari buruzko lanak ere erdaraz argitaratzen dira. Adibiderik garbiena, Euskaltzaindiaren organoa bera da, *Euskera* alegia. Euskaltzaleak beren artean erdaraz mintzatzeko ohitura ere

nahikoa zabaldurik zegoen, nonbait. Pierre Broussainek Lacomberi 1919ko martxoan egiten dion gutunean, adibidez, lamentazioka ari da Eusko Ikaskuntzako batzarkide euskaltzaleek gaztelaniaz hitz egiten dutelako, eta egoera hori gainditzeko esperantza hurrengo belaunaldian ezartzen du¹⁸. Euskaltzaindiko bileretan, orobat, gaztelania erabiltzen zuten, Orixek eta Azkuek ere bai euskal gaiez ihardutean²⁹.

c) Areago oraindik, euskal kultur-gintzaren alorrean autore klasikotzat dauzkagun horien artean, datu estatistikoek erakutsi digute, Zaitegi eta Orixe kenduta, beste seirek erdaraz orrialde gehiago idatzi dituztela euskaraz baino. Datu hau ere, besterik gabe, izugarri adierazgarria da eta esplikazio bat eskatzen du.

Zein interpretazio merezi du guzti horrek?

Lan hau ez da batere erraza eta nire gogoetak, zerbait definitiboa baino gehiago, aurre-ohar batzuk besterik ez dira izango eta, gainera, aztertzen ari garen aro honi mugatuak. Ondoko beste aroak aztertzean, agian, egoera hobean egongo gara interpretazio helduagoak emateko.

Autore horietako batzuk garbi asko ohartu ziren euskararen erabilerak nolako kontraesanak bizi zituen, batez ere, maila praktikoan eta, neurri batean, teorikoan ere bai. Eta hau autore horien euskal kulturari buruzko iritziak barrutik ezagutuz ikusi dugu ondoenik.

Baina badira adostasunak eta ezadostasunak, maila desberdinetan planteatzen direnak. Uste dudanez, oinarrizko bi arazo bederen badaude eta komeni da biak argitzea: bata da mugatzea euskara landuak kulturaren zein esparru hartu behar duen, eta bestea esparru horiek euskaraz lantzeko zein hizkuntz eredu erabili behar duen. Bi maila horiek nola planteatzen diren ikusiko da jarraian, tesiak joera gisa azalduz. Zentzu honetan, Zaitegik *Euzko-Gogoa* argitaratu eta hurrengo urtean, 1951n, *Gernika* aldizkarian eztabaida bizi-bizia ireki zen Krutwig eta Orixeren artean euskal kulturaren gainean eta horren berri izan gabe ezer gutxi ulertuko da gurean gai horri buruz eraiki den diskurtsoa, hortik hasten baita hariltzen gaur arte luzatzen den kultur eta hizkuntz arazoa.

Kultur hizkuntzaz hitz egiterakoan, ezin da alde zuzenetik esan gabe utzi, gaur egun oraindik, adostasuna ez dela erabatekoa kontzeptu horren edukinari buruz. Oro har, hizkuntza baten gizarte-funtzioei dagokienez, José María Sánchez Carrión-ek³⁰ jarraiko zazpi erabilera posibleok izendatzen ditu, goitik behera honela hierarkizatzen dituenak: nazioartekoa, kulturala edo zibilizazioarena, nazionala, lokala, lanekoa, familiakoa eta nortasunezkoa. Lehen bi hizkuntz mota horiek bigarren hizkuntza gisa ikasten dira, azkeneneko beste biak ama-hizkuntza diren bitartean. Bestalde, hizkuntza batek nazioarteko hizkuntza gisa funtziona dezan, beharrezkoa da kultur hizkuntza desberdinek berori bigarren hizkuntza gisa ikastea elkar-komunitatzeko

xedearekin. Egun, funtzio hori ingelesak betetzen du, lehen latinak bete zuen bezala. Areago joanez, kultur hizkuntza horren barruan, Miguel Siguán-ek³¹ dakarrenez, adiera bikoitza ematen da: batzuentzat, literaturan nahiz zientzian erabiltzeko baldintza batzuk betetzen dituen hizkuntza adierazten du eta beste batzuentzat, berriz, nazioarteko erabilera duen hizkuntza handi horietako bati dagokiona da. Joxe Martin Apalategik³², zuzenean euskal kultur gintzaz ari delarik, elkar-komunikatzeko, gehienez ere, bi hizkuntza daudela dio: bata “kulturazko nortasunezkoa” eta bestea “kulturazko harremanetarakoa”. J. M. Sánchez Carrión-ek egindako diagramaren arabera, lehenengo eta azkenengo funtzioak betetzen dituztenei dagozkienak dira horiek. Beraz, J. M. Apalategik proposatzen duen bezala, herri-nortasuna adieraziko duen hizkuntza, gure kasuan, euskara izango da eta nazioarteko kultur harremanetarakoa, berriz, ingelesa. Hizkuntz jakabide honi deitzen dio elebitasun onargarria: “Bi horietan gure hizkuntz politika itsatsia behar da, oso-osorik”³³.

Aurre-zehaztasun horiek biziro egoki datozkigu autore klasikoen hizkuntz ikuspuntuak eta, ondorioz, jokabideak argitzera goazen une honetan.

1. Kultur hizkuntza

Krutwigek, “Euskera Euskalerraren kultur-bidea ledin izan” artikuluan (34), Eleizaldek Oñatiko Batzarrean formulatutako tesiak bere eginez, defendatzen zuen euskararen

gizarteratzea gizarte-klase gidariaren eskuetan zegoela eta, etorkizunari begira, sektore horretan hartu behar zituela euskarak, hor batipat, historikoki erdarak bete izan duen lekua. Horretarako, euskarari kultura landua eskuratu beste biderik ez dagokio. Eta hemen bi galdera egin behar dira. Lehenik, zein kultura izango da hori eta horrek zein disziplina besarkatu behar ditu? Krutwigentzat, funtsean, bere sustraiak Grezian dituen europar kultura da hori, hemengo zibilizazioak maila akademikoan landu duen kultura zientifikoa, zehazki disziplina hauek aipatzen dituelarik: mitologia, filosofia, jakintza, erlijioa, poesia, musika, artitektura, etab. Beraz, zientziaren esparru osoa besarkatzen du, mugarik gabe.

Joera horren arabera, bada, euskararen lanketa zientzi mota guztietara zabaltzen da, giza zientzietatik hasi eta positiboetaraino. Gainera, hizkuntzari ematen zaion funtzioa funtsean utilitarista da, zeren horri eskatzen zaion gauzarik inportanteena baita gaitua egotea gizarteak dituen premia guztiei erantzuteko. Orduan bakarrik erabili ahal izango du gizarte-klase elitistak bere eguneroko bitzitan.

Baina euskarak zein eredu linguistikoren arabera jokatu behar du kultura tekniko-zientifiko hori aldi berean zehaztasunez eta ulergarritasunez emateko? Bigarren galdera honi Krutwigek ematen dion erantzuna da, Europako beste hizkuntza moderno gehienek bezala, euskarak ere beretu egin behar dituela maileguzko hitzak eta normaltasun osoz txertatu bere lexikoan. Beraz, kultura unibertsalaz

jabetzeko, terminologia unibersala erabili behar da.

Tesi horixe bera defendatu zuen Villasantek “En torno al problema del vascuence” artikuluan, oraindik ere gehiago biribilduz bilbotarraren formulaketak eta, bide batez, horri hizkuntzalaritzan autoritatea aitortuz: “Nadie, que yo sepa, ha abordado este problema con la competencia y detención que él”³⁵. Joera hau izango da, hain zuzen, eskola gisa gorputzik sendoena agertuko duena ondoko urteetan eta gerrate ondoan euskararen normalkuntza-norabideak, corpus-ari dagokionez, gehien markatu dituen.

2. Hizkuntz kultura

Orixek³⁶, Isaak Lopez Mendizabalak “¿Euskaraz nola idatzi bear da?” artikulua aitzakiatzat hartuta, orduko euskaltzaleen artean lau joera bereizten ditu “Comentarios a un artículo de *Gernika*” lanean: a) joera populista edo, bestela esanda, soilki herri-literatura egitera mugatzen direnena; b) euskara jaso, literarioa eta zientifikoa, egiten dutenena; c) biak batera egiten saiatzen direnena; d) euskaraz sekula idatzi ez eta idazten dutenen kontura maxioka dihardutenena. Lehenengo hiruak joera positibotzat dauzka, ez horrela azkenengoa. Orixeren eskema hori egoki datorkigu, besterik ez bada giltza operatibo gisa, orduko hizkuntz portaera linguistiko nahiz soziolin-guistikoen ate barrutik sartu eta autore klasiko horien emaitzak interpretatzeko.

Orixek³⁷, bere aldetik, Krutwig-en planteamenduari ematen dion erantzuz-

nean ahalegintzen da argitzen gai honi buruzko arazoa. Baina bere azalpen honetan badira argi-ilun dexente, azalduz etorriko garenak.

Lehenik, kultura batipat hizkuntzaren ikuspegitik gogoemanda, “ciencia gramatical” eta “lengua gramatical” deituak bereizten ditu: lehenengoa da kulturari orohar dagokiona, nazionalari nahiz nazioartekoari, horren barruan sartuz disziplina zientifiko guztiak; bigarrena, aldiz, hizkuntzari berari buruzko jakintza da edo, gaurko terminologian esateko, ezagutza hertsiki linguistikoa. Horietako bakoitzak du bere iker-eremu berezia. Beraz, bereizketa hori aurrean dugula, galde dezagun zein den Orixeren iritzia? Oso garbia: a) kultur hizkuntza edo zientifikoa ez dago zertan derrigorrez euskaraz eman, zeren “yakintasun ori, latinez naiz beste izkuntzaz ikasi dezakegu”³⁸; b) gramatika-hizkuntza, kasu honetan euskaralopia, euskaraz ikasi behar da, hots, barrutik ezagutuz eta landuz, zeren “izkera ez da lantzen edo yakintsu biurtzen, besteren basotik sasiak ekarriz”³⁹.

Beraz, garbi dago, kultura hutsa egin, euskara ez den beste hizkuntza batean egin daitekeela, zehazki latinez, Estatu modernoek hizkuntza nazionalak kulturalizatu arte egin zuten bezala. M. J. Quintana-k 1813an Instrukzio Publikoaz egindako Txostenean⁴⁰ datorrenez, irakaskuntza osoa, goi-ikasketak barne, gaztelaniaz ematea proposatzen da. Honek esan nahi du, testuan bertan zehazten den bezala, lehen eta bigarren mailako irakaskuntza gaztelaniaz egiteko zailtasunik ez zegoela, baina bai goi-

-mailakoa, zeren disziplina batzuk gaztelaniaz ematen ziren bitartean, beste batzuk latinez ematen baitziren. Zentzu honetan, Orixek kultura landuaren hizkuntzatat latina izendatzeak badu bere logika eta da, zetorren bezala mundu klasikotik eta, areago oraindik, jesuiten pedagogiatik etorrira, latinak bete zuela Europako kulturaren historia luzean zehar, modernitateara arte, komunikazio-funtzio esklubiboa.

Zientzien ezagutza eta garapenarako bigarren hizkuntza ikasia, Orixeren kasuan latina, onartuz gero, gramatika-hizkuntza geratzen da, hots, euskarari berari buruzko ezagutza eta hau izango da euskal pentsamendua edo kultura espezifikotasunez ezaugarrituko lukeena. Eta maila gramatikalean, Orixeren ustez, euskarak gaitasun apartak ditu barne-egituraren aldetik, zalantzarik gabe, frantsesa eta gaztelania basatien⁴¹ eta, are, grekoaren⁴² eta latinaren⁴³ aldean, garaiagoak⁴⁴. Bestalde, pentsamenduaren sustraia Gramatikan zetzala uste baitzuen⁴⁵, lehenik euskal gramatikaren muina aztertzeari ekin zion eta, horretan oinarrituta, saiakera mailan filosofian metafisika eta estetika⁴⁶ eta erlijioan mistika euskaraz ematera ausartu zen eta sorkuntza mailan, berriz, literatura. Beraz, Orixeren kultur hizkuntzak, urrutienik joanda ere, literatura, gramatika eta filosofian ditu bere mugak. Euskara beste zientzietan lardaskatzea baino hobe, batere ez erabiltzea. Hala dio Krutwig eta Villasantez ari dela: “Iakinkizunari dagokion saila edozein izkeratan egin diteke. Beraz, ez gaitezen larritu, gurean oraindik erabili ez ba’dugu.

Artara ezkerre, Krutwig’en eta Villasante’ren euskerara edozer irauli ditekete. Euskera ori, ulertu ba liteke ere –erri xumeak ez, beintzat–, beti mordoilo geratuko da”⁴⁷.

Kultur nortasunezko hizkuntzaren erabilerari dagokionez, bada, muga ezarri, hizkuntzaz jator eta bikain jabetzeak ezartzen du, ez beste ezerk. Ondo ez ematekotan, betor kultur harremanetarako hizkuntza, nazio-artekoa. Hau, nahiz aro modernoan bizi, latina izango da Orixerentzat.

Hizkuntzaren kultur alderdiari utzi eta, euskarak zein hizkuntz eredu erabili behar du euskal kultur landu hori lantzeko? Krutwig-ek dioenaren kontra, euskarak uko egin behar dio maileguzko hitzak hartzeari. Alderantziz, “Mintzaira bakarra, giza-enda bakarra”⁴⁸ artikuluan dakarrenez, lehenik, lexikogintzan euskal harrobia ahalik eta gehien ustiatzea eta maileguak ezinbestean bakarrik erabiltzea proposatzen du; bigarrenik, sintaxia zaintzea hizkuntzaren muina delako; hirugarrenik, ortografiari buruzko arauetan zientzia mistoaren irizpideak segitzea edo, gaurko hizkuntzan esanda, irizpide soziolinguistikoak kontuan hartzea.

Hori horrela dela, hizkuntz ereduari dagokionez, Orixek Krutwig eta konpainia ezkerrean ezartzen ditu, Gaztediko aranistak eskuinean eta berak bere burua erdian, neologista moderatuen artean. Bide honetatik joko dute Zaitetik, Labaienek, Aita Omaetxeberriak eta.

Zaitegiren euskararekiko jokabidea

guztiz koherentea izan da, guztien artean logikoena, hizkuntzaz pentsatzen zuen huraxe bera obratu baitzuen, zientziaren lau sailok harrotuz: literatura, filosofia, erlijioa eta hizkuntza. Gure Kixote egiazkoa Zaitegi izan da, euskarak sail akademikoan bete behar zuen lekuaz oso ondo jabetua zegoena. Ideiak oso garbi zeuzkan: a) euskararik gabe ez zegoela Euskal Herririk eta, ondorioz, euskal kultura euskaraz egindakoa bakarrik zela; b) euskararen salbazioa gehienbat, hori kultur hizkuntza landu eta moderno bilakatzean zetzala eta horretarako, Pariseko Euskal Batzar Orokorrean (1956) esan bezala⁴⁹, euskarak behar zuela bere Unibertsi-tatea; c) euskara erabili egin behar dela, nonnahi eta beti, eta zer esanik ez jakintza mailan⁵⁰. Hor dago bere lana, *Eusko-Gogoa*-an egindakoa, *Jakin-en*⁵¹ Joseba Intxaustik lantzen duena, eta greziar filosofia lantzen eta euskararitzen egindakoa. Nik neuk, batipat, euskararekiko koherentzia logikoa estimatzen dut gehienik. Bera da aztertzen ari garen zortziko talde horretan euskara hutsean produzitu duen bakarra. Salbuespen, ez dakit ohoregarria, baina bai txundigarria.

3. Modernotasuna eta euskara hiritarra

Hirugarren joera hau Koldo Mitxelenari dagokiona da, Orixe eta Krutwig-en eztabaida segitu ondoren, *Egan*-ek 1951n argitaratutako “Euskal-literaturaren etorkizuna”⁵² artikulu famatuan azaldu zuena. Euskararen ordurarteko balantze moduko bat egiten du eta, bidenabar, euskal kulturaren bi ezaugarri nagusiok

aipatzen ditu: a) euskara da gure berezitasun espezifikoa adierazten duena, besteengandik bereizten gaituena; b) Lizardiren “larreko izkuntza noranaiko egin” delako hura helburutzat hartuz, euskarak kultura modernoa lortu behar du, euskal literatura nekazal girotik atera eta hiritartuz. Hemen garbi dago euskal kulturaren etorkizuna ez duela oinarritzen, Orixe bezala klasi-zismoan, modernotasunean baizik. Txillardegiren existentzialismoa, artean euskaltzaletasuna nahikoa integrista zelarik, Mitxelenari esker sartu zen jauregi-atetik gazteriaren gogoan. Bestalde, eta hemen ere zalantzarik ez da, kultur nortasunezko hizkuntza bakarra, gurean, euskara da.

Baina kultura modernoaren baitan, eta orain zehaztuko dugu Mitxelenaren hizkuntz jokabidea gehien nabarmen-tzen duen ezaugarria, ikerketa akademikoaren esparru osoa nazioarte-ko hizkuntzaren esku uzten du. Tesi hau 1956an defendatzen du, bere ikerketa-lanak erdaraz argitaratzen dituelako, Umandik *Euzko-Gogoa*-tik salatzen duenean. Euskal kulturgintzan euskara noiz erabili noiz ez, azken batean, zentzu praktikoak erabaki behar duen arazoa da. Eta hizkuntz erabileraren maila utilitaristara heldu eta gero, Mitxelenak irizpide nagusit-zat ikerketaren eta dibulgazioaren arteko bereizketa egiten du, esanez: “Baina bi gauza dira, eta arras bereziak, jakintza irakastea eta jakintza aurreratzea, edo aurrerazi nahiean ibiltzea, gizon ikasi asko-jakina eta bilatzailea zeharo ezberdinak diren antzera”⁵³. Bere ikerketa-lanen har-tzaileek ez baitakite euskara, hara

zergatik dagoen erdaraz egitera behartua: “euskaldunek... erdaraz badakite; irakurtzea nahi nukeen zenbait erdaldunek, berriz, ez dakite euskaraz”⁵⁴.

Gainera, inoren ikerketak, zientziaren aurrerapena dakartenak, etxeratzeko, hortxe daude itzulpenak.

Mitxelenak ez du esaten, egia da, kultur gaiak euskaraz erabili behar direnik. Erabileran mugak jartzen ditu. Hori da guztia. Zentzu honetan, ikerketa-mailan, kultur nortasunezko hizkuntzak, euskarak, amore eman behar du kultur harremanetarako hizkuntzaren aurrean. Mitxelenaren ikuspuntu honetaz lehenago nahikoa luze mintzatua naiz *Sei idazle plazara* liburuan⁵⁵, irakurleak han aurkituko ditu arrazoiketa honen kontrako objektzioak. Dena den, ez nuke bukatu nahi diskurtso hau bi galdera egin gabe: bat, nork erabakitzen ditu iker-tzailearen eta irakaslearen arteko mugak?, eta bi, euskararen normalkuntzari dagokionez, hain ebidentea al da jokabide praktikoagoa dela ikerketak, ez euskaraz, baizik erdaraz ematea?

Nolanahi ere, gauza bat dago garbi, eta da bai Mitxelenak eta bai Barandiaranek, agian beren lanak kanpora begira idatzi dituztelako, euskaraz baino gehiago idatzi dutela erdaraz edo, zehatzago esanda, gaztelaniaz. Barandiaranek, hala ere, baditu, sei titulu frantsesez, 2 alemanez eta beste bi ingelesez.

4. Populistak

Orixek⁵⁶, eta nik uste zuzen, eskola

populistan kokatzen ditu Altube, Larreko eta, gure kasuari dagokionez, Aitzol eta Lafitte. Berak aipatzen ez duen arren, Lekuonari ere, bere ekarpena ahozko literaturan sustraitu zuenez gero, agian ikuspegi hauxe legokioke ondoenik.

5. Hizkuntzalari erdaldunak

Arbuigarrizat daukan azken joera honetan, Orixek erdaraz bakarrik idazten duten hizkuntzalariak ditu gogoan, Bouda, Gavel eta Altube bezalakoak. Beraz, ez da hau idazle horietako inoren kasua.

Heldu gara bukaerara: autore klasikoak aztertuta, ohartu gara kontraste nabariak daudela bai euskaraz landu beharreko kulturgintzaren esparrua mugatzeari dagokionez eta bai lanbide horretan erabili beharreko hizkuntz ereduari dagokionez. Asko edo gutxi, guztiek praktikatu dute, J. M. Apalategiren terminologiarekin esateko, elebitasun onargarria. Guztiek, salbu Zaitegik. Bestalde, elebitasunaz baliatzean, gaztelania eta frantsesa erabili dituzte, euskara egoera diglosikoan daukaten hizkuntzak, hain zuzen. Eta hau azpimarratzea guztiz garrantzitsua da, zeren, zenbat eta gehiago erabili euskararekin gatazkan dauden bi hizkuntza horiek maila zientifikoan, orduan eta zapalgarriagoa izango baita euskararen egoera.

Gainditu ote ditu egungo euskal kulturgintzak kontraesan horiek? Galdera honek beste batean erantzuten saiatzea eskatzen du.

- 1 Jakin, Arantzazu-Oñati, 1974.
- 2 Erein, EUTG, Donostia, 1977.
- 3 Honen pentsamendua ikusteko, besteak beste, hor duzu J. C. Larronde-ren *El nacionalismo vasco. Su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Ediciones Vascas, Donostia.
- 4 Campion: “Nacionalismo, fuerismo y separatismo”, in: *Obras completas*, XIII, Mintzoa, Iruñea, 1985, 248-249.
- 5 Barandiaran: *Obras completas*, XI, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 236 or.
- 6 Barandiaran, “Constantes en la etnia vasca”, in *Cultura Vasca*, I, op. cit., 14 or.
- 7 Jose Ariztimuno (Aitzol): *Idazlan guztiak - Obras completas*, 5 ale, Erein, Donostia, 1986-1987; Nikolas Ormaetxea (Orixe): *Idazlan guztiak*, 3 ale, Eusko Jaurilaritza/Etor, Donostia, 1991; Manuel Lekuona: *Idazlan guztiak*, Kardaberaz bilduma, Tolosa, 12 ale, 1978-1987; Jose Migel Barandiaran: *Obras Completas*, 22. tomoa, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1972-).
- 8 *Euskal idazlan guztiak*, 8 ale, Euskal Editoreen Elkarte, Etor, Donostia, 1988.
- 9 “Piarres Lafitte zenaren lanak (Bibliografia)”, *Euskera*, XXXI (2. aldia), 1986, 1, 31, Bilbo, 87-101 orr.
- 10 “Luis Mitxelena Elissalt (1915-1987)”, in: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991, XIII-XLIII.
- 11 Auñamendi, Donostia, 1970.
- 12 *Zenbait hitzaldi*, Etor, Bilbo, 1972, 6 orr.
- 13 *Euzko-Gogoa*, 1958, IX, 541-692 orr.; 1959, X, 253-272 orr.
- 14 *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian*, UEU, Donostia, 1992.
- 15 “Aitzol euskal soziolinguistikaren aintzindari”, in: *Idazlan guztiak*, I, Erein, Donostia, 1998, 257-291.
- 16 Euskal Editoreen Elkarte, Erein, 1990.
- 17 *Euskal idazlan guztiak*, III, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, 1988, 108 or.
- 18 Itxaropena, Zarautz, 1955, 2 or.
- 19 *Idazlan Guztiak*, I, op. cit., 698 or.
- 20 Iztueta, P.: *Orixe eta bere garaia*, V, Etor, Donostia, 1991, 232-238 orr.; 278-295 orr.; 483-517 orr.
- 21 Iztueta, P.: *Orixe eta bere garaia*, V, op. cit., 596-600 orr.
- 22 “Eusko yakintza alde”, *Yakintza*, 1 zk., 1933, 11 or.
- 23 Iibeltza, orrilla, 1956.
- 24 *Jakin. 25 urte euskal kulturaren*, 21 zk., 1981, 251 or.
- 25 “Kataluñarrak eta gu”, *Euzkadi*, 1923-I-21.
- 26 Gutuna Orixek Lizardi, 1929-IV-17.
- 27 “Nazionalismoaren ahulezia historikoa”, *Larrun*, 16 zk., 1993, 34 or.

- 28 Horrela esaten dio, berak ere frantses garbian: “Espérons que la prochaine génération ne verra pas ce phénomène paradoxal de Basques traitant de la langue basque dans une langue latine!” (Charriton, Pierre: *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques (1895-1920)*, Paris, Centre Nationale de la Recherche Scientifique, 1985, 256 or., 144 ohar.)
- 29 Iztueta, P. *Orixe eta bere garaia*, op. cit., 293 or.
- 30 *Un futuro para nuestro pasado*, Lizarra, 1987, 75-76 orr.
- 31 “Educación y pluralidad de lenguas en España”, *Revista de Occidente*, Madril, 10-11 zk., 1982, 36 or.
- 32 “Aurkezpena. Euskal kulturgintzaren arduradunoi”, in: I. “*Gerriko*” *Idazlan-Sariketa*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1991, 16 or.
- 33 Ibid.
- 34 *Gernika*, 14 zk., 1951, 8-11 orr.
- 35 *Cantabria Franciscana*, Imprenta del Santuario de Aranzazu, 8 zk., 1951, 49 or.
- 36 *Gernika*, 14 zk., 1951, 18-21 orr.
- 37 “Krutwig yauna euskeraz”, *Euzko-Gogoa*, 11-12 zk., 1950, 49-52 orr.; beste artikulu bat ere prestatua zeukan, hau gaztelaniaz “Un artículo euskérico de F. K. Krutwig” izenarekin, baina ez zuen argitaratu.
- 38 “Krutwig yauna euskeraz”, op. cit., 50 or.
- 39 Ibid.
- 40 Ministerio de Educación y Ciencia: *Historia de la Educación en España*, I, Del despotismo ilustrado a las Cortes de Cádiz, Secretaría General Técnica, Madril, 1985, 382-383 orr.
- 41 Iztueta, P. *Orixe eta bere garaia*, op. cit., 836 or., 101 ohar.
- 42 “Lati-izkuntzaren joskera”, in: *Idazlan guztiak*, III, op. cit., 995-1017 orr.
- 43 “Composición gramatical griego-vasca”, op. cit., 1018-1042 orr.
- 44 “Mintzaira bakarra, giza-enda bakarra”, op. cit. 845-851 orr.
- 45 “Hacia una gramática nuestra”, op. cit., 815-830 orr.
- 46 Ibid., 19-178 orr.
- 47 “Euskerari nola eutsi”, op. cit., 967 or.
- 48 Op. cit., 845-851 orr.
- 49 Euskal Batzar Orokorra/Congreso Mundial Vasco, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuak, Gasteiz, 1980, 189 or.
- 50 Adierazgarria da, zentzu honetan, Velez-ek kontatzen duen anekdota: “Arratsaldeko 7. etako Meza ematen zuen Iokinek egunero Arrasateko Eliza Nagusian. Behin Elizara iristen dela On Jose Luis Iñarra parrokoa zenak arestian hildako baten alde eman behar zuela Meza esan zion. ‘Erdaraz ala euskeraz’ galdetu ei zion Iokinek. ‘Erdaraz’ erantzuna. ‘Bada, orduan zeuk eman’ esanez etxerako bidea hartu zuen ostera. Hildakoa hauzokide zeukan Iokinek” (Iokin Zaitegi, Arrasate, 1981, 220 or.).

- 51 “Euzko-Gogoa-ren lankideak”, Jakin, zk. 12, 1979, 121-138 orr.; “Zaitegi eta Euzko-Gogoa. Hamar urteko lana (1950-1959)”, Jakin, 13 zk., 1980, 96-120 orr.
- 52 Euskal idazlan guztiak, IV, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988, 21-28 orr.
- 53 “Euzko-Gogoa” eta “Euskaera”, in Mitxelena, K.: Euskal idazlan guztiak, VIII, op. cit., 129 or
- 54 Ibid., 128 or.
- 55 I, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1974, 15-82 orr.
- 56 “Comentarios a un artículo de Gernika”, op. cit., 20 or.